




*Euskal
Autonomi
Elkarteko
emakume
baserritarrak*



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KARMENTXU INTXAURRAGA
EBA ITURRITXA
J. JAVIER SALAZAR

Euskal

Autonomi

Elkarteko

emakume

baserritarak

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 1994

IZENBURUA: "Euskal Autonomi Elkarteko emakume baserritarrak."

EGILEA EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea
C/ Manuel Iradier, 36. 01005 VITORIA-GASTEIZ

AUTOREAK: Karmentxu Intxaurreaga, Eba Iturrutxa, J. Javier Salazar

DATA: Apirila 1994

ALE ZENBAKIA: 1.000

DESKRIPTOREAK: Diskriminazioa, lana, soldaten arteko diskriminazioa, epaiak, berdintasunerako politikak, sindikatuak, lan harremanak, estatistika-datuak, simposiumak.

IRUDI DISEINUA: Ana Badjola eta Isabel Madinabeitia

ILUSTRATZAILEA: M^a José Gamboa

FOTOKONPOSAKETA: RALI, S.A.
C/ Particular de Costa, 12-14. 48010 BILBAO

INPRIMAKETA: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4. 01010 VITORIA-GASTEIZ

I.S.B.N.: 84-87595-17-0

LEGE GORDAILUA: VI-150/94

AURKIBIDEA

AURKEZPENA 7

HASIERAKO GOGOETA 9

HELBURUAK 11

METODOLOGIA ETA ERABILITAKO ITURRIAK 13

- Azterlanaren fitxa teknikoa 13
- “Baserritar” hitzaren esannahia 14
- Azterlanean aplikatutako teknikak 15

LEHEN ZATIA: ZENBATEZKO AZTERKETA 21

1. EGOERAREN ADIERAZLE NAGUSIAK 23

- 1.1. Sarrera 23
- 1.2. Biztanleria eta ingurumena23
- 1.3. Egitura demografikoa 27
 - 1.3.1. Sexuen arteko desoreka 27
 - 1.3.2. Zahartzea 29
- 1.4. Ekonomi iharduera 38
 - 1.4.1. Biztanleria eta iharduera sektoreak 38
 - 1.4.2. Iharduera tasak 40
- 1.5. Eskualde bakoitzaren ezaugarriak antzemateko gakoak 41

2. EMAKUMEAK ETA NEKAZARITZA 49

- 2.1. Sarrera 49
- 2.2. Emakumeen zeregina nekazaritzan 50
- 2.3. Emakumeen zuzendaritzapeko nekazaritza 54

2.4. Senitarketo laguntzailea	57
2.5. Soldatapeko emakumeak	59
2.6. Emakumeen partehartzea iharduketa kolektiboetan	59
2.7. Nekazariak diren emakumeen lege-eskubideak	61
2.7.1. Ezkontza erregimen ekonomikoak	61
2.8. Nekazariak diren emakumeen gizarte-eskubideak	63
2.8.1. Nekazaritzan diharduen euskal emakumearen gizarte-eskubideak ..	66
 BIGARREN ZATIA: KUALITATEZKO AZTERKETA	 69
1. AURRETIKO OHAR BATZU	71
2. EMAKUME BASERRITARRAK ETA LAN MERKATUA	73
3. FAMILIA ETA ETXEKO LANAK EMAKUME BASERRITARREN ARDURAPEAN	75
4. EKIPAMENDUAK, BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAK BASERRIAN: EDO HAIEN GABEZIA	77
5. BASERRIKO EMAKUMEEN INGURUNEA: ETXEKO LANETATIK AT	81
6. TALDEAK, ELKARTEAK, KOLEKTIBOAK: KANPORA BEGIRA	85
7. BASERRIKO EMAKUMEEN ASTIALDIA	87
8. AISIA ANTOLATU...	89
9. ...ETA GOZATU EGITEN DA	91
10. HEZIKETAREN HUTSUNEAK	93
 ONDORIO GISA	 95
• Azken laburpena	95
• Gogoetak eta litezkeen jokabideak	100
 BIBLIOGRAFIA	 105


Aurkezpena

Nekazaritza-guneetan aldaketa sakonak ari dira gertatzen eta, horien ondorioz, gune horietan emakumeek orain arte bete dituzten zereginak berraztertzen hasi beharra dugu. Alde batetik, nekazaritza mekanizatu ondoren, baserriaren ekonomiarentzat ez da jada beharrezkoa barne-kontsumora begira lehen emakumeak egiten zuen lana. Bestetik, eta mekanizazio hori dela medio, noizbehinka eta laguntza gisa –baina beti etxeko lanez gain– emakumeak baserrian egiten zuen lana ez da gaur egun beharrezkoa. Lehen zituen zereginetatik, bada, etxeko lanak dira gaur egun emakumearen ardurapean egoten jarraitzen duten bakarrak eta, ondorioz, biztanleriaren iharduerari buruz egiten diren estatistike-tan ez da inon agertzen emakumeek egindako lana. Hau da, emakumeen lanari ez zaio duen balioa ematen nekazaritza-ustiapen txikien –baserrien-oinarrietako bat diren arren: emakumeek daramate baserria, emakumeak dira bertan etxeko andre, hezitzaile, erizain, ohitura eta usadioak gordetzen dituztenak.

Dena dela, gaur emakumea lan-merkatura iritsi denez, bere lana neurtu eta gizartean duen lekua ezar dezakegu, nahiz eta emakumei eskaintzen zaizkien lanak gutxi izan, espezializaziorik eskatzen ez dutenak, inork nahi ez dituenak eta “etxeko lanetan aditua” izatea eskatzen dutenak. Bestela esanda, emakumeek hainbat oztopo dituzte lan-merkatuan sartzeko, eta askotan etxeko andre huts izatearena da uzten zaien irtenbide bakarra. Familiaren ustiapenean “laguntzaile” moduan ageri ohi dira gehienetan emakumeak, berez langile eta jabe ere badiren arren, eta ematen zaizkien lan-eskubide eta gizarte-zerbitzuak lanik egin gabe besteren menpe bizi denari ematen zaizkion berberak dira.

Egoera hori bizi dutenak batez ere emakume helduak diren bitartean, gazteengan ez da halakorik, eta belaunaldien arteko etena argi ikusten dugu. Emakume gazteek heziketa zabalagoa jaso dute eta ez daude prest etxeko andre izateko; baserria uzten dute edo, bertan geratzen badira, lan eta soldata baten bitartez inoren menpeko izateari utzi nahi diote.

Edonola ere, eta emakume baserritarren adina alde batera utzita, azterlan honetan gauza bat garbi erakusten da: herri-erakundeek gai honen inguruan politika eraginkorra bultzatu behar dute. Gizonezko nahi emakumezkoek esparru guztietan iharduteko eskubidea izan dezaten ziurtatu behar du politika horrek eta, aldi berean, guztiek aukera berdinak izan ditzaten arduratu.



Txaro Arteaga Ansa
EMAKUNDE/Emakumearen Euskal
Erakundeko Zuzendaria

Hasierako gogoeta

E.A.E.ko baserrietako emakumeei buruzko azterlan bat egin baharra planteatzerakoan, Ikerlari Taldeak gai nagusi batzu zeuzkan gogoan.

Batetik, emakumearen zeregina arautzen duen baloreen sistema moralizat jotzen den gizarte honetako patriarkalismoa; gero eta garrantzi gutxiago badu ere, sexuen arteko jokabide-ezberdintasuna mugatzen bait du eta baserriko gizartean nabarmenago azaltzen delako zenbait alderdiri dagokionean.

Bestetik, baserriko emakumea beti aritu izan dela gizonaren ondoan bai etxeko zereginetan eta bai baserriko lanetan, sarritan ezkutuan geratzen den lan txit garrantzitsua betez.

Beste alde batetik, 1990. urteko lehen hiruhilabetekoan zehar, baserriko emakumeengana jo genuen haiekin harremanetan jarri asmoz, eta horrenbestez, Emakunderen dirulaguntzaz eta Euskal Nekazarien Sindikatuen gidaritzapean zenbait hitzaldi eman ziren E.A.E.ko hiru lurralde historikoetan, ondoren Emakume Baserritarren Lehen Batzarra burutu zelarik.

Zuzenean parte hartu genuen lehen ekinbide honek hausnarketarako bide eman zigun eta, aldi berean, nahiko bazterturik dagoen arlo honetan ikerketa sakona egin beharra dagoela erakutsi zigun, horrela egin ahalko bait da eskakizun konkretuen zehaztapena, gerora haiek gauzatu ahal izateko. Eta guzti hau, baserritar inguruaren osoko garapenean laguntzekotan, eta emakumea garapen horren ezinbesteko bultzagile dela jakinik. Beste arrazoi askoren artean, baserriaren hustuketa geldiaraziko bada, emakumeari esker izango delako, baina, beti ere, baserrietatik ez ateratzeko arrazoiak, lanbide-mailakoak, kulturalak... eskaintzen bait zaizkie, noski.

Emakumeari, beraz, anonimatotik atera eta dagokion tokia aitortu behar zaio. Hortaz, erabat garrantzizkoa da emakume baserritarrak mintza daitezen euren kezka eta eskakizun zehatzak adierazteko, horrela, ikerketak haiek jasaten bide dituzten gabeziak eta kultur-gabezeria arintzeko baliabide eta tresnak bideratu eta sortzeko balio izango bait du.

Hau da, dinamizazio, sustapen eta prestakuntzarako egitasmoen bidez, epe labur eta ertainera, baserrian emakumeari dagokion arloan bertan zuzenean eragiteko jokabideak zehazten ahaleginduko gara, jakinik, guzti hau Europako Komunitateak bultzatu eta E.A.E.ko administrazioako erakunde ezberdinek mendi nekazaritzari, eskualde behartsuei eta abarrei dagozkien egitasmoen bidez abiarazi dituzten plan eta estrategien barne dagoela.

Ikerlari Taldea

Helburuak

Ondorengo orrialdeetan eta azterlanaren laburpen orokor gisara, Ikerlari Taldeak, Gizarte Azterlanetarako Kabinetea, Euskal Autonomi Elkarteko emakume baserritarren taldearen ikuspegi ahalik eta osokoena eta homologagarriena erakusteko bidean halako hurbiltze orokor bat eskaintzea du helburutzat, bide batez, emakumeon eskakizunak, gabeziak, akatsak eta beharrianak azalduz.

Ez berdintsua, ez eta homogenoa ez den taldea osotzen duten emakumeak.

Beren ohiturak, kultura, ekonomia, gizarteak, eskualde nahiz lurraldea dituzten emakumeak, hau da euren errealitatea bizi ohi dutenak, baina, aldi berean, beste errealitate batzuren partaide direnak.

Garai eta kondaira batetan murgildutako emakumeak. Garai ñabar eta anizkuna, baina, batez ere, hiritarra eta industria-ondokoa, teknologiaren nagusitasuna erakutsi eta ekonomia, gizarte nahiz kultura mailako eskakizun eta jokabide berriak sortarazten dituenak. 93aren zain, gizaldi baten amaierara begira dauden Europako hiritarren artean aurkitzen diren emakumeak.

Baina, halaber, baserriari gehien bat loturiko mundu batetan bizi eta lan egiten duten emakumeak, inguruan auzokide gutxi izan ohi dituztenak (hamarretik 10.000ra bitartean), askotan biztanleria sakabanatua eta osasuna, hezkuntza, garraibide eta abarrei dagokienez, oro har, baliabide, zerbitzu eta ekipamendu urriagoak, urrunagoak eta osatu gabeagoak izan ohi dituztenak, haiek ezartzerakoan, sarritan, biztanle-kopurua izaten delako erizpiderik garrantzizkoena. Hurbiltze orokor honen bidez, zera lortu nahi izan dugu, batetik:

- Emakumeak, beren ezaugarri amankomunekin eta berezitasunekin, egunerokoak dituzten erreferentziazko eremuetan kokatu eta mugatzea.
- E.A.E.ko baserri eta nekazaritzaren ingurunea osotzen duten emakumeen talde ñabar eta anizkun honen benetako egoera eta berorri dagozkion gabeziak, akatsak eta beharrianak aztertu eta antzematea.

Eta bestetik hurbiltze honek:

- Benetako egoeraren eta gabezien azterketa eta ezagutza horretatik abiatuta, iharduketarako estrategia edo jokabide orokorrak moldatzeko aukera eta ahalbidea bihur dadila, epe ertain eta luzera, E.A.E.ko baserri eta nekazaritzaren inguruko emakumeentzako dinamiza-

zio eta ekintza positiborako kudeaketan eragina izan eta haiek jasaten dituzten ezberdintasun-mekanismoei aurre egiteko lagungarriak izan daitezkeen jokabideak, alegia.

Guzti hori hurrengo planteamendu eta asmookin:

- Benetako ekintzak, eskualde bakoitzaren adiurreari, bertako emakumeen ezaugarriei, baliabideei, ibilbide historikoari eta kultura aldetiko jokaerei egokitutako ekintzak.
- Kudeaketarako hautabide iraunkorrak, gabeziak konpondu ezezik, egoera horiek sortarazten dituzten egiturazko kausak kontutan har ditzatenak.
- Estrategia orokor eta erabatekoak, emakume hauek “dauden”, “bizi diren” eta “euren ahalmenak garatzen dituzteneko” lurralde osoaren ahalbideen garapen dinamiko eta osoari dagokion testuinguruan txertatuak eta bateratuak.

Metodologia eta erabilitako iturriak

AZTERLANAREN FITXA TEKNIKO A

- IKERKETAN SARTZEN DEN BIZTANLERIA:

16 urte edo gehiago dituzten emakumeak Euskal Autonomi Elkarteko 10.000 biztanletatik beherako udalerrietan egoiliar direnak.

- IKERKETAK BARRUHARTZEN DUEN EREMUA:

Euskal Autonomi Elkarteko 10.000 biztanletatik beherako udalerriak: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoak.

- IKERKETAREN HELBURU NAGUSIA:

Euskal Autonomi Elkarteko emakume baserritarren gabezia eta beharrezanezko buruzko lehen hurbiltze-mugapen bat lortu eta zehaztea.

- IKERKETAREN HELBURUA:

Epe ertain eta luzera E.A.E.ko baserri eta nakazaritzaren inguruko emakumearentzako dinamizazio eta ekintza positiborako kudeaketa eragin ditzaten jokabideak edo iharduketarako estrategiak moldatzea.

- METODOLOGIA:

- EUSKARRI NAGUSIA:

Kualitatezko azterketa: taldeko eztabaida mahainguruetan.

- EUSKARRI OSAGARRIAK:

Kualitatezko azterketa: elkarriketa sakonak.

Zenbatezko azterketa: nekazarien errolda eta E.A.E.ko udal erroldaren ustiapena.

Hau da, euskal baserrien edo nekazaritzaren eremuan bizi diren edo bertako egoiliar diren emakume guztiek osotutako biztanleria aztertuko dugu.

“BASERRITAR”

HITZAREN ESANNAHIA

Ondoren, “baserritar” hitza zehazrretik, ordea, “baserritar” delako kontzeptuari dagozkion zenbait ñabardura aipatzea komenigarritzat eta beharrezkotzat jotzen dugu. Gure azterlanaren abiapuntua eta onartutako erizpideak arrazoitzen dituzten ñabardurak, alegia. Izan ere, baserritar hitzaren barne nola eta zer aukeratu eta zehaztu dugun argitu eta ezagutzeaz ari bait gara, beti ere, E.A.E.an dauden estatistika-tresnak erabilgarriak suerta daitezela ere aintzat harturik, noski.

“Baserritar” eta “kaletar” edo “hiritar” kontzeptuak aurrez aurre jarri eta zehazterakoan eragozpen handiak aurkitzen ditugu. Badira biztanle-kopuruari begiratzen diotenak, beste batzuk eskualde horretan nagusi den ekonomi iharduera hartzen dute kontutan...Baina, “baserritar” eta “kaletar” kontzeptuen baitan bada esannahi sakonagoa, ibilbide historiko ezberdinak izan dituzten bizimodu eta kultura-eredu bereiziaz dira, usadio, ohitura, ezagutza, pentsamolde nahiz portaera ezberdinak izan dituztenak, nahiz eta gaur egun bereizketa hori ez den horren argia.

Urte batzutatik hona baserritar mundua aldatuz doa, ekonomian gertatutako aldaketen arabera bilakaera bat soma daiteke. Erabat kaletar edo hiritar diren industri nahiz zerbitzu sektoreekiko hartuemanak halako erabereketze bat dakar, lehenago oso bereiztuak ziren gizarte hauen arteko muga ezabatu egin duena.

Baserritarren migrazioak, lehen indarrean zeuden hainbat auzo-hartuemanen deuseztapenak, baserriaren eta hiriaren arteko etengabeko eta ohizko hartuemanak, komunikabide berberak erabiltzeak, gizarte eta ekonomiaren egokitzapena dakarte, baldintza ekonomiko horietatik kanpo legokeen baserritar komunitateari eusteko gogo nabarmendu arren.

Dena den, erabereketze edo bateratze-bidean gaude, bateratze kulturala, hiri-mailakoa eta industria-ondokoa, eta bide horretan baserria eta baserritarrari dagozkion gizarte eta kultura-eredua nolabait bazterturik gelditu da, hondarra bait litzan, zaharrengan, batez ere, datzan hondarra, alegia.

Eta marginazio hau areagotuz doa baserrian gero eta zerbitzu gutxiago dagoenetik, eta gutxitze honek baserrien hustuketa dakar, horrela haien iraupena eragotziz.

Arazo handiak, beraz, gure lanak ikutzen duen arloan aurki daitezkeenak, are handiagoak emakume baserritarraren mundu berezia aztertzerakoan agertzen direnak, zeren, gure gizartean, oro har, patriarkalismoaren akatsak oso nabariak badira, baserriko gizartean askoz ere latzago ageri bait dira, sexuaren araberako portaera ezberdinetan ere eragin handiagoa dutelarik.

Geroko kudeaketa eraginkorra izan dadin, xehetasun alderagarriak eta homologagarriak oso garrantzizkoak direla eta, halaber, kanpoko lanaren eginkortasuna aintzat harturik, 10.000 biztanletatik beherako udalerrietako egitatezko biztanleak jo ditugu E.A.E.ko baserritartzat. Horrela, Eustat delakoak ezarritako estatistika-erizpideari jarraitzen diogu. Eta, bide batez, erakunde horrek eta Eusko Jaularitzak erabilitako eskualdeketari diogu, horrela xehetasun alderagarri eta erkagarriez lan egin ahal izateko.

AZTERLANEAN

APLIKATUTAKO TEKNIKAK

Ezarritako helburua lortzeko, hau da, E.A.E.ko emakume baserritarraren benetako egoera eta haren gabeziak eta beharrianak aztertzeko, planteamendura egokitutako metodologia bat erabiltzea erabaki genuen, talde hori sakonki ezagutu eta bere eskakizunen berri zehatza eman liezaigukeen metodologia, alegia.

Errealitate jakin honekin topo egin genuenean ohartu ginen gai honen inguruan badirela bestelako eragozpenak ere, hots, azterlanetan erabiltzen diren ohizko tresnak kamutsak direla emakumearen presentzia eta iharduerari dagozkienean.

Estatistika eta azterketa arruntetan, oro har, emakumeak ez dira modu egokiz aztertutak izaten bai hirian eta bai baserrian duten tokia eta zereginari dagokienean.

Akats hauek gainditu asmoz, objektu hutsezkoa baino zabalagoa den ikuspegi bat onartu beharra zegoela uste izan genuen eta, horrenbestez, "Estudios de la Reproducción Social" deituriko pentsaera eta analisi-korronteek, batik bat, garatu dituzten ikerbideetara jo genuen. Ilerketa ikuspegi honetatik burutzeko, zenbatezko teknikak eta kualitatezkoak erabili eta konbinatu egin ditugu, nahiz eta kualitatezko teknikari garrantzi handiagoa eman diegun.

Horrela bada, metodologia honen bitartez, gizartearen birsorkuntzaren eremuan, emakumeak

gizartean duen egoera mugatzen dituzten arrazoiak azaldu eta ezagutu nahi izan ditugu. Hortaz, hurrengo metodologia-bideei jarraitu zaie:

ZEHARKAKO IKERBIDEA: ZENBATEZKO AZTERKETA

- Izan dezakegun estaldura-maila jakiteko lagungarriak gerta daitezkeen agiri ezberdinak (estatistikak, emakumeei buruzko azterlanak, baserrietako emakumeei buruzko azterlanak, azterlan orokorrak eta erabilgarriak izan daitezkeen bestelako guztiak) bilatuz, abiabide-eremu bat moldatzea.
- Emakume baserritarrari buruzko agiri berezien bilketa zehatza, agiritegi bat sortzeko oinarri izateko balio beharko duena. Hurrengooi buruzko xehetasunak bildu beharko lirateke:
 - E.A.E.an dauden azterlanak eta materiala.
 - E.A.E.tik kanpo egindako azterlanak.
 - E.E.E.tik (Europako Ekonomia Elkartetik, gaur Europako Batasuna) etorritako materiala.
 - Bestelako azterlan interesgarriak.

Maila honetan erdietsitako xehetasunak 2. ikerbideari ekiteko abiapuntu izango dira.

ZUZENKO IKERBIDEA: KUALITATEZKO AZTERKETA

E.A.E.ko emakume baserritarraren eskakizunari buruzko azterlana eta kualitatezko azterketa.

Emakume baserritarrei beraiei zuzendutako kualitatezko eta egiturazko teknikak erabili dira. Hau da, elkarriketa sakonak eta taldeko eztabaidak mahainguruan, gizarte-subjetu eta aktoreek beraiek (kasu honetan emakume baserritarrek) ordezkariatasun aktiboa lortzeko teknikak, nahiak, gabeziak eta jarrerak "adierazteko aproposak diren teknikak, alegia.

Azterketa egiterakoan hurrengo maila osagarriok sailkatu dira:

1) Grabatutako elkarriketak edo taldeko eztabaidak, zeharkako ikerbidean oinarritutako laginera egokiturik, Ikerlari Taldeak aurretiaz ezarritako ezaugarri jakin batzuren arabera aukeratutako 10etik 12ra taldekidez osotutakoak taldeak, alegia, multzoarekiko garrantzia eta bakoitzaren berezitasunak kontutan harturik aukeratutako nekazaritza-eskualdeka banatuak.

2) Banakako elkarriketa zabalak, grabatuak hauek ere, aztergai dugun gizarte-eremuan ezagunak edo garrantzitsuak diren emakumeekin egindakoak (sindikatuak, kooperatibak, el-

karteak eta abarrak bezalako nekazaritza arloko erakundeetan diharduten emakumeekin, alegia).

3) Argibideak jasotzeko elkarrizketak, alderdi zehatzen bila edo baserritar arloan eta bereziki bertako emakumeen inguruan nolabait diharduten Administrazioako nahiz bestelako Erakundeetako ordezkariengana joaz.

lkerketaren funtsezko oinarria den maila honetan lortutako datuak, landuak izan ondoren, egungo euskal emakume baserritarren egoerari buruzko ezagupena osotu eta egokiago zehazteko lagungarriak gertatuko zaizkigu.

KUALITATEZKO AZTERKETA: ESTABAIDA-TALDEAK, ELKARRIZKETA SAKONAK

Mahainguruetako delako egiturazko edo kualitatezko teknika erabat aproposa suertatzen da nahien eta sineskizunen "adierazpide" gisa. Teknika honen bitartez, ordezkartasuna duen taldea barnetik azter daiteke, haren egiturak, jokabideak, ohiturak eta jarrerak, hau da, pertsona horiek egiten dutena eta zergatik egiten duten jakin daiteke.

Eztabaida-taldeak aukeratu eta egituratzerakoan, Euskal Autonomi Elkarteko baserritar munduan gizarte-agente gisa nabarmentzen diren emakume guztiak barne hartzen ahalegindu gara.

Horretarako, euskal emakume baserritarrak izan daitezkeenei dagozkien ezaugarri multzoak ezarri dira. Ezaugarri hauek eztabaida-mahai bakoitza osotzerakoan aplikatuko direlarik mahai bakoitzari zegokion eremuan ezaugarriok zeukaten garrantziaren arabera.

"Emakumeoi" legozkiekeen ezaugarriak honako hauek lirateke:

- 45 urtetik gorako emakume ezkondua eta/edo banadua edo alarguna, sema-alabak dituen eta funtsean Nekazaritzari/Abeltzaintzari lotutako famili iharduera ekonomikoa duena.
- 45 urtetik beherako emakume ezkondua eta/edo banandua edo alarguna, seme-alabak dituen eta funtsean Nekazaritzari/Abeltzaintzari lotutako famili iharduera ekonomikoa duena.
- Emakume gazte ezkongabea, funtsean Nekazaritzari/Abeltzaintzari lotutako famili iharduera ekonomikoa duena.

- 45 urtetik gorako emakume ezkondua eta/edo banandua alarguna, seme-alabak dituen eta batez ere mistoa (Nekazaritza/Abeltzaintza + Industria/Zerbitzuak) den famili iharduera ekonomikoa duena.
- 45 urtetik beherako emakume ezkondua eta/edo banandua alarguna, seme-alabak dituen eta batez ere mistoa (Nekazaritza/Abeltzaintza + Industria/Zerbitzuak) den famili iharduera ekonomikoa duena.
- Emakume gazte ezkongabea, batez ere mistoa, (Nekazaritza/Abeltzaintza + Industria/Zerbitzuak) den famili iharduera ekonomikoari lotutakoa.
- 45 urtetik gorako emakume ezkondua eta/edo banadua edo alarguna, seme-alabak dituen eta funtsean Industriari/Zerbitzuei lotutako famili iharduera ekonomikoa duena.
- 45 urtetik beherako emakume ezkondua eta/edo banadua edo alarguna, seme-alabak dituen eta funtsean Industriari/Zerbitzuei lotutako famili iharduera ekonomikoa duena.
- Emakume gazte ezkongabea, funtsean Industriari/Zerbitzuei lotutako famili iharduera ekonomikoa duena.
- Emakumeen taldeei edo elkarteei lotutako eta horrelakoetan parte hartutako emakumea.
- Kudeaketako lanpostu publikoekiko lotura zuzena duen emakumea.
- Emakumearen arloarekin zerikusirik duten lanpostuei lotutako emakumea.

Erreferentziazko ezaugarri hauek mugaturik, hurrengo urratsa dagozkien portzentaiak (zeharkako bidetik lortuak) aplikatu eta mahai bakoitzaren osakera zehazteko emakume-ezaugarri bakoitzari dagokion zenbatekoa jakitean datza.

Lurralde Historiko bakoitzeko mahaien banaketa honela gelditu zen:

LURRALDEA	MAHAI-KP
Araba	5
Bizkaia	4
Gipuzkoa	4

Mahai hauetan antzerako ezaugarriak dituzten eskualdeak bildu ziren, Eusko Jaurlaritzak zein Nekazarien Sindikatuek erabilitako eskualde guzti-guztiak agertzen zirelarik.

Biltoki (13) nagusiak hauexek izan ziren:

LURRALDE HISTORIKOA	BILTOKIA	HURRENGO ESKUALDEOTAKO ORDEZKARIAK ZIRELA:
ARABA	Kuartangoko zuazo	Gorbeialdea Aiara edo kantauri Arabarra
	Berantebilla	Arabako Ibarrak
	Kanpezu	Arabako Mendialdea
	Biasteri	Errioxa Arabarra
	Alegria-Dulantzi	Arabako Lautada
BIZKAIA	Lekeitio	Markina-Ondarroa Gernika-Bermeo
	Gatika	Plentzia-Mungia Txorierri Bilbo Handia industria aldea izan ezik)
	Karrantza	Enkarterriak
	Arrazola	Durangaldea Arratia-Nerabioi
	Bergara	Deba Garaia Deba Beherea
GIPUZKOA	Zumarraga	Goiherri
	Azpeitia	Urola-Kostaldea
	Tolosa	Tolosaldea Donostialdea

Ondoren eginkizun neketsu bati ekin zitzaion, mahai bakoitzerako “emakume bereziak” bi-latzeari, alegia. Biltoki bakarra izango zuten mahaietan bilduko zirenak.

Hortaz, egun eta ordu jakin batetan bildu behar ziren emakume-taldeok eta, jakina, horretarako hainbat arazo ager zitezkeen.

Azkenean, eta Ikerlari Taldeak ezarritako egutegia luzatu eta atzeratu beharra izan bazen ere, E.A.E.ko lurralde osoa barruhartzen zuten 13 mahaiak bildu ziren.

Eta atal honi bukaera eman aurretik, emakumearen arlo eta arazoekiko lankidetzaz eta elkartasun eskergarria aipatu beharra dago. Orrialde hauen bitartez, gure esker ona adierazi nahi diegu mahaietan parte hartuz beren laguntza baliotsua eskaini diguten ehundik gorako emakumeei.

Ikerketa ahalik eta osotuena izan zedin, interesgarria eta garrantzitsua irudituz zitzaigun aztergai genuen taldearen arazoei eta egoerari buruzko ikuspegi ahalik eta zabalena lortzea. Horretarako, zenbait alderdi sakonago aztertu, hainbat puntu zehaztu eta dihardugun iker-

keta-arloan zer esanik duten aditu edo gizarte-agenteen ekarpenak erabiliz zenbait argibide osotu behar zirela planteatu genuen. Hartuemanetan hasi ondoren, sei elkarrizketa sakon eta luze izan genituen E.A.E.ko emakume baserritarrari buruzko hutsune, ñabardura eta puntu batzu zehazteko.

Hortaz, aditu havei ere eskerrak eman nahi dizkiegu eskaini dizkiguten laguntza, eritzi eta orientabideengatik.

Mahai bakoitzaren edukina eta garapena alde zurretik ezarritako gidoi orokor bati lotu zitzaizkion, gidoi berbera mahai guztientzat. Ikerlari Taldearen tekniken bitartez, bestalde, argibide zehatz eta egokiak lortzeko hizpidea zuzendu eta gidatu zen. Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetan, mahairik gehienak euskaraz mintzatu ziren.

Ondoren, haietan esandakoa hitzez hitz jaso zen, horrela, edukin nagusiak eta kontutan hartu beharreko ardatzak ateraz edukina aztertzeko.

Gai honi lotutako pertsona eta erakunde zenbaitekin egindako elkarrizketa osagarriekin ere prozedura berbera erabili zen.

ZENBATEZKO AZTERKETA

Zenbatezko azterketa lantzeko, E.A.E. dagozkion 1.986ko Errolda eta Nekazarien Zentsutik jasotako xehetasun eta argibideak erabili dira.

Horiek aukeratzera, hurrengo arrazoioek hartu dira kontutan.

Ikerketa hau noiz egiten den aintzat harturik aspaldikoa bada ere, 10.000 biztanletatik beharako udalerriei dagokienez, argibide berezituak eta sexuka sailkatuak agertzen zituen iturririk oparoena 1.986ko Errolda zen.

Horrez gainera, argibideok homogenoak dira hiru lurralde historikoei dagokienean, parametro eta maila berberak erabiliz sailkatuak eta, beraz, alderagarriak.

Era berean, E.A.E.ko nekazaritza arloko xehetasun erlatibo eta zehatzak eskaintzen zituen iturri eskuragarri bakarra 1.982ko Nekazarien Zentsua zen.

Iturri biotako xehetasunak erabiliz, emakume baserritarren erreferentziazko eremua eta parametro sozioekonomikoak mugatu ziren.

Prozedura osoak bost hilabete t'erdi iraun du (1.991ko otsailetik uztaileara).

LEHEN ZATIA

*Zenbaterako
azterketa*

1.

Egoeraren adierazle nagusiak

1.1

SARRERA

Atal honetan, ikerketaren lehenengo fasean, hau da, zeharkako informazio iturrien bidez eskuratutako materialean batez ere oinarritutako fasean bildutako datuak jaso, aztertu eta lantzen dira.

Kapitulu honetan sakondu aurretik, berriro ere azpimarratu behar dugu estatistika "ahazkor" ageri zaigula sexua delako aldagaia bereizi eta adierazirik egindako zenbatekoketari dagokionez. Are ahanzkorrago, gurea kasuan bezala, baserritar munduari edo 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalei bagagozkie.

Hortik sortzen da, hain zuzen ere, E.A.E.ko hiru lurralde historikoetan 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietako emakumeek osotzen duten talde ñabar horren adierazle demografiko eta sozioekonomiko nagusien erreferentziazko esparrua mugatzerako ahalegin honetan aurkitu dugun berarizko eragozpen bikoitza.

Emakumea eta baserria delako gaiari buruzko literaturaren bila abiatu garenean ere zailtasuna eta urritasuna izan dira nagusi. E.A.E.ari buruz, gainera, ezer gutxi aurkitu dugularik.

1.2

BIZTANLERIA ETA INGURUMENA

E.A.E.ko biztanleriaren bostena, gutxi gorabehera, 10.000 biztanle edo gutxiago dituzten udalerrietan dago erroldaturik.

Gainontzeko biztanleria udalerrri handiagoetara biltzen da.

1. TAULA Udalerrri-kp. eskualde eta lurralde historikoka, biztanle-tamainazko geruzaren arabera

	10.000 EDO GUTXIAGOKO UDALERRIAK ESKUALDEKO UDALERRI GUZTIEKIKO						
	< 500	501- 100	1001- 2000	2001- 3000	3001- 5000	5001- 10.0000	
ARABA							
Arabako Ibarrak	6	3	—	—	—	—	9/9
Arabako Lautada	3	3	3	—	1	—	10/11
Arabako Mendialdea	3	2	1	—	—	—	6/6
Errioxa Arabarra	9	3	2	1	—	—	15/15
Gorbeialdea	—	2	3	—	—	—	5/5
Kantauri Arabarra	—	1	1	1	—	1	4/5
BIZKAIA							
Arratia-Nerbioi	3	3	5	—	3	—	14/14
Bilbo Haundia	—	—	4	3	—	6	13/19
Durangaldea	2	1	3	—	3	2	11/14
Enkarterriak	1	3	1	1	1	13	10/10
Gernika—Bermeo	8	4	4	—	—	—	16/18
Markina-Ondarroa	4	3	1	—	—	2	10/11
Plentzia—Mungia	3	5	2	3	—	1	14/15
GIPUZKOA							
Bidasoa Beherea	—	—	—	—	—	—	—/2
Deba Beherea	—	—	1	—	2	1	4/5
Deba Garaia	1	—	1	1	1	1	5/8
Donostialdea	—	—	—	—	2	3	5/10
Goierrri	5	2	6	1	—	3	17/20
Tolosaldea	13	6	5	1	1	1	27/28
Urola-Kostaldea	1	2	1	1	2	1	8/10

2. TAULA

1986 URTEA	UDALERRIAK ESKUALDEKA	ESKUALDEKO BIZTANLEAK GUZTIRA	10.000 BIZT. BAINO GUTX. UDALERRIAK	10.000 EDO GUTXIAGOKO ZUZENBIDEZKO BIZTANLERIA
ARABA				
Arabako Ibarrak	9	4.160	9	4.160
Arabako Lautada	11	209.997	10	10.548
Arabako Mendialdea	6	3.533	6	3.533
Errioxa Arabarra	15	9.788	15	9.788
Gorbeialdea	5	5.519	5	5.519
Kantauri Arabarra	5	34.731	4	13.550
6 ESKUALDE	51	267.728	49	47.098
BIZKAIA				
Arratia-Nerbioi	14	21.843	14	21.843
Bilbo Haundia	19	926.949	13	63.239
Durangaldea	14	91.812	11	30.247
Enkarterriak	10	30.702	10	30.702
Gernika-Bermeo	18	46.077	16	9.594
Markina-Ondarroa	11	28.396	10	17.219
Plentzia-Mungia	15	33.371	14	22.165
7 ESKUALDE	101	1.179.150	88	195.009
GIPUZKOA				
Bidasoa Beherea	2	67.085	—	—
Deba Beherea	5	63.201	4	16.318
Deba Garaia	8	66.356	5	13.387
Donostialdea	10	315.759	5	23.747
Goierri	20	2	6	1
Tolosaldea	28	6	5	1
Urola-Costa	10	2	1	1
7 ESKUALDE	83	689.222	66	136.607

Arabari dagokionez, 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien biztanleriaren hiru laurdenak 2.000 biztanletatik beherako geruzetan bildurik ageri zaigu. Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien biztanleriaren laurden bat baino ez da geruza horietan agertzen.

Dentsitateari ere erreparatzen badiogu, argi eta garbi azaltzen zaigu indizerik txikienak Arabako lurralde Historikoari dagozkiola.

Zifra eta datu hauek argi asko erakusten digute E.A.E.ko hiru lurralde historikoetako biztanleriak jasan duen “hiritze” eta batze prozesu nabarmena. Eta prozesu honen ondorioz hiru egoera ezberdin sortu badira ere, ezaugarri bat, gutxienez, hiruetan ageri zaigu, hots, hiri-guneen aldeko herrialde-desoreka.

Herrialde-garapenari dagokionez, gaur egun hiru lurralde historikoetan nabari diren egoera bereiziak sortarazi dituzten prozesu ezberdin hauek ulertarazteko, iragan mendeko azken hirurenean hasi zen industri dinamikatik abiatu beharko genuke, berori izan bait da egungo biztanle-guneen itxuraketa baldintzatu duena.

Eta industrializazio horrek berezitasun, ondorio eta garapen ezberdinak izan ditu hiru lurralde historikoetako bakoitzean, baina hiruetan gertatu ziren biztanleen lekualdaketa itzelak, lurraldez kanporakoak nahiz lurralde barnekoak, eta batez ere, gazteriaren sekulako joatea hiri eta industrigune horietara.

Prozesu honen ondorioz, hirietan biztanle saldo positiboak erakusten dituzten hiru errealitate sortu dira, nahiz eta 70. hamarkadan, ekonomiaren krisialdia eta industri tasaren beherakada direla medio, joera hori nabarmenki leundu zen.

Hiru lurralde historikoei dagozkien zifrak aztertuz gero, Araban udalerri gehienek, ia denak, 10.000 biztanle baino gutxiago dituztela ikus dezakegu, eta gainera, udalerri horien biztanleetatik %88,3 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan aurkitzen ditugu.

Udalerri hauei, bestalde, Arabako Lurraldearen biztanle guztien %17,6a besterik ez dago-kie. Hortaz, Arabako lurralde historikoan biztanleriaren desoreka handia eta nabarmena ageri da eskualde eta herrialde mailetan. Eta desoreka hau are larriagoa da Arabako Iba-rretan eta Arabako Mendialdean, eta ez horren nabarmena Kantauri Arabarra delako es-kualdean.

Sakabanatutako baserri-udalak ageri zaizkigu Arabako Lurralde Historikoko eskualde guz-tien ezaugarri gisa, bi salbuespen nabari direlarik, Laudioko udala Kantauri Arabarra deri-tzan eskualdean eta Vitoria-Gasteiz Lautadan, azken honetan Arabako biztanleriaren ia hiru laurdenak biltzen direlarik.

Bizkaian, batez ere, eta Gipuzkoan ez da Araban dagoen biztanleen eta lurraldearen arte-ko desoreka larri hau antzematen.

Gipuzkoan bi eskualde ageri zaizkigu baserriko ezaugarriak nagusitzen diren udalerrien gehiengoz: Goiherri eskualdea eta Tolosaldea.

Bizkaian, berriz, Bilbo Haundia Eskualdea salbuetsita, gainontzeko eskualdeetako udalerri erdiak 2.000 biztanle baino gutxiagoko baserri-udalak ditugu, eta hauen artean, Gernika, Mungia eta Arratia ditugu baserritarrenak.

Horrenbestez, E.A.E.ko biztanleriaren ia bosten bat dugu aztergai, bertako udalerri guztien lau bostenak betetzen dituen biztanleria.

1.3

EGITURA DEMOGRAFIKOA

1.3.1

SEXUEN ARTEKO DESOREKA

Gizontasun-erlazioa, hau da, 100 emakumeri dagokion gizon-kopurua, 105 gizonetakoa izan ohi da, 24 urteren inguruan berdinduz doa erlazioa, hortik aurrera alderantzizkoa bilakatzen delarik gizonen hilkortasun handiagoaren poderioz.

3. TAULA Euskal Autonomi Elkartea, 1986. Sex ratio = % 98,3

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
%100,8	%98,4	%97,6

Iturria: Geure lana. 1986ko Errolda EUSTAT.

Ondoren, aztergai dugun 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak osotzen dituen biztanle-multzoari dagozkion sex ratioak (gizonak/emakumeak erlazioa) zehaztuko ditugu.

4. TAULA 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien sex ratioak eskualdeka (1986. urtea)

	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	SEX RATIOA
ARABA			
Arabako Ibarrak	2.231	1.929	%115,7
Arabako Lautada	5.460	5.088	%107,3
Arabako Mendialdea	1.895	1.638	%115,7
Errioxa Arabarra	5.034	4.754	%115,9
Gorbeialdea	2.883	2.636	%109,4
Kantauri Arabarra	6.779	6.771	%100,1
BIZKAIA			
Arratia-Nerbioi	11.056	10.787	%102,5
Bilbo Haundia	31.585	31.654	%99,8
Durangaldea	15.208	15.039	%101,1
Enkarterriak	15.449	15.253	%101,3
Gernika-Bermeo	4.761	4.883	%98,5
Markina-Ondarroa	8.730	8.489	%102,8
Plentzia-Mungia	11.093	11.072	%100,2
GIPUZKOA			
Bidasoa Beherea	—	—	—
Deba Beherea	8.246	8.072	%102,2
Deba Garaia	6.909	6.478	%106,7
Donostialdea	11.942	11.805	%101,2
Goierrri	17.603	17.131	%102,8
Tolosaldea	14.046	12.862	%109,2
Urola-Kostaldea	11.087	10.426	%106,3

Iturria: EUSTAT, 1986ko errolda.

Autonomia Elkartean ezberdintasun nabarmenak aurkitzen ditugu, eskualde bakoitza batzbestekoarekin alderatzean, batez ere. Araba dugu eskualdeka (10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak biltzen dituztenak aintzat harturik) gizontasun-tasarik handienak erakusten dizkigun lurralde historikoa. Tasa are nabarmenagoak ekonomiaren aldetik garapen urria eta migrazio handia dituzten eskualdeetan.

Eta hori bi adierazpen demografikoei lotzen zaie zuzen-zuzenean:

- Alde aurreratuenetan gizon-kopuru handiagoa dagoela baserritar eremuetan.
- Migrazioetan, hau da, baserritik hirirako lekualdaketetan emakumezkoak nagusi direneko saldoa egiaztatzen dela.

Sexu bat eta bestearen arteko desoreka nabarmen hauek eragingarriak eta garrantzizkoak bilakatzen dira umeak izateko eta ezkontzeko adinetan suertatzen direnean; izan ere, ho-

rrek jaiotze-tasaren murrizketa bait dakar eta, ondorioz, hazkundearen beherakada eta E.A.E.ko baserritar biztanleriaren zahartzea. Kualitatezko azterketari dagokion zatian ezkondu gabeko gizonezkoen arazoa, hau da, "mutil-zaharren" gaia aipatzen da Gipuzkoa-ko Lurralde Historikoan izandako bileraren batetan.

1.3.2

ZAHARTZEA

Ondoren, E.A.E.ko 10.000 biztanletatik beherako udalerrriak barruhartzen dituzten eskualdeetako biztanleen adinaren arabera banaketa azaltzen duen taula emango dugu.

E.A.E.ko baserrialdeei dagokien biztanleriaren piramidean, oro har, hurrengo ezaugarriok ageri zaizkigu:

19 URTE EDO GUTXIAGOKOEN ADIN-TALDEA

Eskualde gehienetan estugune bat dakusagu, funtsean bi kausengatik gertatzen dena:

- Jaiotze-tasaren beherakada orokorrarengatik
- Migrazioaren ondorioz biztanle-soberakinak sortarazi beharko lituzketen bitarteko adinekoei dagokien hustutzearengatik.

20 ETA 44 URTE BITARTEKOEN ADIN-TALDEA

Irudietan agertzen denez, biztanle-kopururik handienak erakusten dituen adin-taldea dugu hiru Lurralde Historikoetan. Dena den, ohartxo bat egin beharra dago:

- Batetik, 20 eta 30 urte bitarteko adin-taldea dugu. Talde honek ugaritasun handia erakusten du, zenbait kausarengatik suertatzen dena, eta berorien artean bat azpimarra genezake: herritik alde egin eta hiriratzeko ereduaren haustura, langabezi tasa orokorraren neurri handia, gero eta beranduago ezkontzeko joera eta, guzti horri lotuta, familiaren etxetiko irteeraren berandutzea.
- Beste alde batetik, 31 eta 45 urte bitarteko taldea dugu. Talde hau hustutze handi batez ageri zaigu, 50. hamarkadaren amaieran eta 60. hamarkadan zehar belau-naldi hauek aukera gehiago, egonkortasuna eta irabazi oparoagoak eskaintzen zizkien hirirako bideari ekin ziotelako urte haietako industrializazioaren eraginez.

45 ETA 64 URTE BITARTEKOEN ADIN-TALDEA

Adin-talde honi dagokionez, eskualde gehientsuenetan hasi gaitezke antzematen baserriar udalen zahartzeko joera, adin-talde honek duen garrantzia, gerrate zibilak belaunaldi honengan izan zuen eragina ere nabaria izan arren.

65 URTE EDO GEHIAGO DITUZTENEN ADIN-TALDEA

Eskualde guztietan nabarmentzen da zahartze-prozesua, beraz, talde honek pisu handia du. Arabari dagozkion piramideetan, berriz, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeetan baino pisu erlatibo handiagoa nabari da. Hau da, 65 urtez gorako biztanleriaren proportzioak pisu handia du.

Amaitzeko, 65 urtez gorako biztanleriak baserri-udal guztietan pisu handia duela esan genezake. Lurraldez lurralde zera dakusagu:

- ARABAn, %14tik gorako zahartze-tasak eskualde guztietan, Kantaurikoa salbuetsita (%12). Eta %25era iristen ez diren gazteria-tasak, Kantauriko eskualdea salbuetsita kasu honetan ere, bertan gazteria-tasak %29a jotzen bait du.
- BIZKAIAn 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan Gipuzkoan baino zahartze-tasa handiagoak ditugu, baina Arabakoak baino txikiagoak, Gernika-Bermeo eskualdean izan ezik, bertan Arabako eskualderen batetan bezala %20ko tasa bait dago. Gazteria-tasak, %24tik %30era bitartean daude, Gernika-Bermeo eskualdean izan ezik, hemengo tasa %20ra baino ez da iristen eta.
- GIPUZKOAn ere %10etik gorako zahartze-tasak ditugu eskualde guztietan, Donostialdean izan ezik, %10etik %13ra bitarteko tasak, alegia, eta %30era nekez iristen diren gazteria-tasak, Donostialdean %33a jotzen duena, bestalde.



Ikus dezagun baserri-udaletako gazteria-tasak eta zahartze-tasak eskualdeka biltzen dituen taula.

5. TAULA Zahartze-tasa eta gazte-tasaren banaketa 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, eskualde eta lurralde historikoa-ren arabera.

	ZAHARTZE TASA	GAZTERIA TASA
ARABA		
Arabako Ibarrak	%20	%18
Arabako Lautada	%14	%27
Arabako Mendialdea	%21	%20
Errioxa Arabarra	%18	%23
Gorbeialdea	%16	%23
Kantauri Arabarra	%12	%29
BIZKAIA		
Arratia-Nerbioi	%14	%25
Bilbo Haundia	%11	%29
Durangaldea	%10	%30
Enkarterriak	%15	%25
Gernika-Bermeo	%20	%20
Markina-Ondarroa	%15	%24
Plentzia-Mungia	%13	%28
GIPUZKOA		
Bidasoa Beherea	—	%27
Deba Beherea	%13	%30
Deba Garaia	%10	%30
Donostialdea	%8	%33
Goierrri	%12	%27
Tolosaldea	%10	%29
Urola-Kostaldea	%11	%29


1. GRAFIKOA. E.A.E.ko biztanleriaren banaketa sexuka eta adinaka lurralde historikoen eta eskualdeen arabera

Arabako Lurralde Historikoa




Iturria: 1986ko Estatistika Urtekaria EUSTAT
(10.000 bizt. baino gutxiagoko Udalerrietan)


Kantauri Arabarreko Biztanleria




Errioxa Arabarreko Biztanleria




Arabako Ibarretako Biztanleria




Arabako Mendialdea Biztanleria




Arabako Lautadako Biztanleria




Gorbeialdeko Biztanleria



Bizkaiko Lurralde Historikoa




GIZONEZKOAK



EMAKUMEZKOAK


Iturria: 1986ko Estatistika Urtekarria EUSTAT
(10.000 bizt. baino gutxiago Udalerrietan)

Bilbo Haundiko Biztanleria




Iturria: Norberak egina. 1986ko Erroldako datuak Eustat

Markina-Ondarroako Biztanleria




Iturria: Norberak egina. 1986ko Erroldako datuak Eustat


Arratia-Nerbioiko Biztanleria




Durangaldeko Biztanleria




Enkarterrietako Biztanleria



Plentzia-Mungiako Biztanleria






Bizkaia-Kostaldeko Biztanleria







Gipuzkoako Lurralde Historikoa




Urola-Kostaldeko Biztanleria




Tolosaldeko Biztanleria



Goiherriko Biztanleria



Donostialdeko Biztanleria



1.4.1

BIZTANLERIA ETA
IHARDUERA SEKTOREAK

Udalerrien ekonomi iharduera haien tamainuaren arabera aztertzen badugu, 5.000 biztanletatik beherako biztanle-geruzetan dauden udalerrietan lehen sektorea garrantzizko portzentaiez ageri zaigula ikus daiteke. Alabaina, ez dela iharduera nagusia eta portzentaia, garrantzizkoa izan arren, ez dela oso nabarmena ere ikusten da.

Guzti honekin zera adierazi nahi dugu, gaur egun, lehenago ez bezala, ezin daitekeela baserritar mundua nekazaritzaz identifikatu.

6. TAULA Biztanleria landunaren banaketa iharduera-sektorearen arabera, lurralde historikoka, 1986. (% horizontalak eta % bertikalak)

Ondoko taulan agertzen denez, E.A.E.an lan egiten duten biztanle guztien %3,8ak baino ez dihardu lehen sektorean.

	NEKAZARIT.	INDUSTRIA	ERAIKUN.	ZERBITZUAK	GUZTIRA
ARABA	5.062 (6,0) (21,7)	37.427 (44,3) (14,6)	5.028 (5,9) (13,4)	37.081 (43,8) (12,2)	84.598 (100,0) (13,6)
BIZKAIA	10.098 (3,1) (43,2)	127.235 (38,8) (49,7)	21.464 (6,6) (57,3)	168.606 (51,5) (55,6)	327.403 (100,0) (52,8)
GIPUZKOA	8.213 (3,9) (35,1)	91.428 (43,9) (35,7)	10.945 (5,3) (29,3)	97.862 (46,9) (32,2)	208.448 (100,0) (33,6)
GUZTIRA	23.373 (3,8) (100,0)	256.090 (41,3) (100,0)	37.437 (6,0) (100,0)	303.549 (48,9) (100,0)	620.449 (100,0) (100,0)

Iturria: Norberak egina 1986ko Erroldak datuak. EUSTAT.

Ondoren azaltzen den taulan 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako biztanleriaren iharduera sektoreen arabera nola banatzen den erakusten da.

7. TAULA 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako biztanleria landunaren banaketa iharduera sektoreen arabera eta eskualdeka, 1986. (% horizontalak)

	LEHENA	BIGARRENA	HIRUGARRENA	10.000 B. EDO GUTXIAGOKO UDALERRIETAKO BIZTANLERIA LANDUNA LURRALDE HISTORIKOKA
ARABA				
Arabako Ibarrak	48,5	23,5	28,0	
Arabako Lautada	22,7	47,9	29,4	
Arabako Mendialdea	46,9	28,1	25,0	
Errioxa Arabarra	26,6	43,6	29,8	
Gorbeialdea	18,3	45,8	35,9	
Kantauri Arabarra	12,2	57,5	30,3	15.809
BIZKAIA				
Arratia-Nerbioi	5,8	57,0	37,2	
Bilbo Haundia	2,6	53,7	43,7	
Durangaldea	4,5	65,3	30,2	
Enkarterriak	12,8	45,0	29,2	
Gernika—Bermeo	22,1	33,3	44,6	
Markina-Ondarroa	21,4	39,5	39,1	
Plentzia—Mungia	9,8	38,8	51,4	56.083
GIPUZKOA				
Bidasoa Beherea	—	—	—	
Deba Beherea	11,7	55,8	32,5	
Deba Garaia	2,6	73,2	24,2	
Donostialdea	6,0	51,3	42,7	
Goierry	5,0	60,4	34,6	
Tolosaldea	10,6	57,4	32,0	
Urola-Kostaldea	21,9	46,9	31,2	43.766

Iturria: EUSTAT, 86ko Errolda, azterlan honetarako egindako lan berezia.

Araba dugu biztanleria landunarekiko portzentaiarik handiena duen lehen sektorea erakusten duen Lurralde Historikoa, Bizkaikoa ia hiru puntuz eta Gipuzkoakoa 2 puntuz gainditzen dituelarik, eta gainera Araba kostalderik gabeko lurraldea, barnekoa, dela kontutan hartu behar dugu. Araban, lehen sektorean lan egiten duten biztanleetako gehienak 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietara biltzen da.

Beste alde batetik, biztanleria landunaren iharduera sektorekako banaketari erreparatuz gero, udalerri hauetan lehen sektorean dihardutenek %10a gainditzen dute Arabako eskualde gehienetan, ia %50era iristen direlarik Arabako Ibarrak eta Arabako Mendialdea deituriko eskualdeetan.

Bizkaian eta Gipuzkoan nekazaritzan diharduen biztanleria portzentaia urriagoaz ageri zaigu industri sektorearen fagoretan eta askotan berorrekin batera, hurrengo azpikapituluan ikusiko dugun moduan. Horrez gainera, kostaldeko lurraldeak izanik, horren ondoriozko iharduera ere kontutan hartu behar da.

Lurralde bi hauetan, bestalde, lehen sektorean lan egiten duen biztanleriaren erdia baino ez da 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan aurkitzen.

Hortaz, datu eta zifra hauek erakusten dutenez, industri sektorea da nagusi, biztanle-kopuru txikiena dagokion Araba delarik lehen sektorean lan egitearen indizerik handienak agertzen dituen lurraldea.

Guzti hau E.A.E.an gaur egun nabari den egoera orokorrari loturik, hau da, langabezia handia eta heldutako industri sektoreetan, batez ere, espezializatutako ekonomia, ingurugiro oso kutsatua eta hiri-multzoketa handia.

1.4.2

IHARDUERA TASAK

E.A.E.ko biztanle-multzoaren iharduera-tasek erakusten dutenez, ordaindutako lan merkatuan emakumeei dagokien partehartzea gizonezkoei dagokiena baino dexente txikiagoa da, hots, %21,7koa eta %54,1ekoa, hurrenez hurren.

Lan merkatu horretara heltzeari dagokionean, ostera, tasa horiek alderantziz ageri zaizkigu eta, horrela, langabezia-tasen kasuan emakumeenak handiagoak dira, %30,9, gizonezkoenak baino, %19,6.

8. TAULA **Iharduera eta langabezia-tasen banaketa (% kotan) sexuaren arabera, E.A.E.ko hiru lurralde historikoetan, 1986**

	IHARDUERA-TASA			LANGABEZIA-TASA		
	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
ARABA	38,9	54,7	23,0	18,7	15,0	27,6
BIZKAIA	36,7	53,7	20,3	24,4	21,2	32,5
GIPUZKOA	38,8	54,5	23,5	22,1	18,7	29,9
GUZTIRA	37,7	54,1	21,7	22,9	19,6	30,9

Ituria: Norberak egina 1986 ko erroldako datuak. EUSTAT.

9. TAULA Iharduera eta langabezia-tasen banaketa (% kotan) sexuaren arabera, 10.000 biztanle edo gutxiago dituzten eskualde eta udalerrika, 1989. urtea

	IHARDUERA-TASAK		LANGABEZIA-TASAK	
	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK
ARABA				
Arabako Ibarrak	58,8	23,5	11,8	15,4
Arabako Lautada	57,1	23,3	16,3	23,8
Arabako Mendialdea	51,6	26,2	12,8	18,9
Errfoxa Arabarra	55,8	18,3	8,2	19,4
Gorbeialdea	59,3	24,4	12,8	23,0
Kantauri Arabarra	55,7	19,3	14,4	27,9
BIZKAIA				
Arratia-Nerbioi	55,0	18,2	16,6	29,4
Bilbo Haundia	53,2	18,4	24,5	34,6
Durungaldea	56,7	20,0	13,5	29,1
Enkarterriak	54,8	17,1	23,3	35,1
Gernika-Bermeo	51,1	19,0	14,0	18,4
Markina-Ondarroa	55,1	20,3	12,4	21,5
Plentzia-Mungia	52,9	20,7	20,5	25,9
GIPUZKOA				
Bidasoa Beherea	—	—	—	—
Deba Beherea	57,3	18,9	17,7	31,5
Deba Garaia	56,0	26,1	25,3	48,4
Donostialdea	54,8	22,3	19,5	31,5
Goierri	55,9	21,8	17,8	31,8
Tolosaldea	56,7	22,0	16,7	27,2
Urola-Kostaldea	55,9	19,8	14,1	30,6

Iturria: EUSTAT, 86ko Errolda, azterlan honetarako egindako lan berezia.

Ikus dezakegunez, tasok E.A.E.an nabari den joera orokorrari eusten diote, langabezia-tasen portzentaiei pisu handiagoa dagokielarik.

1.5 ESKUALDE BAKOITZAREN EZAUGARRIAK ANTZEMATEKO GAKOAK

Ondoren, eta lehen zati honen amaiera gisa, ezaugarri eta berezitasun nagusiak antzema-
 teko gakoak azalduko ditugu, zenbatezko datuen azalpen honek erakutsi dizkigun ondo-

rioak, alegia, eta horrela erreferentziazko lehen esparru orokorra lortu ahal izango dugu, gerora ikerketa honen azken xedeari ekiteko, hots, E.A.E.ko emakume baserritarraren munduan barrena eta haren beharrianen zehar ibilbide bat egitea.

Lehenengo abiapuntu honetan, hurrengo erreferentziok hartu behar ditugu kontutan:

- Aztergai dugun taldea ñabar eta berezia da, hainbat adinetako emakumeak barruhartzen ditu, baserrikotzat jotzen diren eta 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriak bezalako dinamika urriko testuinguru sozio-ekonomiko geldituan kokatuak. E.A.E.an, oro har, industri testuingurua, ekonomi sektore zaharkituetan, batez ere, oinarritutakoa. Krisialdiaren eragin latza, iharduera-tasen beherakadan, langabezia handian, birmoldaketa prozesu berrietan eta baserritik hirirako etorkin gero eta gutxiago izateko joeran nabari dena.
- E.A.E.ko lurraldearen lau bostenetan bizi diren emakumeak, nahiz eta kopuruz gutxi izan: hiru lurralde historikoen biztanleriaren bostena baino ez. Hau da, biztanleriaren eta lurraldearen okupazioaren arteko desoreka nabarmena da.
- Emakume hauek ekonomiaren krisialdi latz baten ondorioak jasan behar izan dituzte eta baita lehenagoko industrializazio gogorak sortarazitakoak ere, emakumeon baserritar munduan arazo handiak sortu dituen eta gaur egun ondokoetan nabaritzen direnak:
 - Despopulaketa.
 - Isolamendua.
 - Adinen araberako egitura zahartua.
 - Migrazio diferentziala izatearen ondoriozko sexuen araberako saldo diferentzialak.
 - Giro eskasa, ekipamendu eta zerbitzu urri.

Guzti hau are nabarmenago ageri zaigularik 10.000 biztanle baino gutxiago duten baserritar eremuko udalerri zenbaitetan.

- Emakumeok, halaber, aldaketa itzelak eta azkarrak eta aurrerapen teknologikoen ondoriozko kultura bateratzea dakarren prozesuan daude sartuta. Eta prozesu honetan ez da lehen bezain erraza gertatzen baserrikoa eta hirikoa jokabide ezberdinak dituzten kultura eredu bi bezala bereizten.
- Baserrikoa deritzan munduan bizi den emakume-taldea, ikerketaren bigarren zatian azalduko den bezala, gehienetan, E.A.E.ko hiri ezberdinetan bizi diren emakumeen beharrian berberak dituztenak, baina, gabezia handiagoak ordea, abiatze-baldintzetan eta baliabideetan batez ere.

Eskualdeka, beti ere 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei dagokienean, 1.986ko Erroldatik ateratako daturik interesgarrienak honako hauek dira:

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA

ARABAKO IBARRAK ESKUALDEA. 9 udalerrik osotutako eskualdea, denak 10.000 biztanletatik beherakoak, guztira 5.000 biztanle baino gutxiago dituztenak (2.231 gizon eta 1.929 emakume). Km²-ko 25 biztanletatik beherako biztanle-dentsitateak. Adin-egitura zahartua, 45 urtetatik gorako emakumeek emakume guztien %50 baino gehiago dira, 20 eta 44 urte bitartekoek %30 baino ez, ordea. Sex ratioa edo gizonak/emakumeak erlazioa, berriz, 115,7 gizon 100 emakumeko.

Biztanleria aktiboaren %48,5ak lehen sektorean dihardu, 23,5ak bigarrenen eta 28,0ak hirugarren sektorean. Gizonen iharduera-tasak %58,8a jotzen du eta emakumeenak %23,5a. Langabezia-tasak, berriz, %11,8 gizonena eta %15,4 emakumeena.

ARABAKO LAUTADA ESKUALDEA. 11 udalerriz osotua, denak 10.000 biztanletatik beherakoak, bat izan ezik, Vitoria-Gasteiz. 11 hauetako 9k 2.000 biztanle baino gutxiago dituzte.

10.000 biztanle baino gutxiago dituzten hamar udalerririk, oro har, 10.000 biztanle barruhartzen dituzte, Biztanle-dentsitate txikiak. Biztanleriaren adin-egitura nahiko gaztea, zahartua ez, behintzat; 44 urtez beherako emakumeak emakume guztien %60 dira, 20 eta 44 urte bitartekoak %36,0. %107,3ko sex ratioa. Industri sektorea da nagusi, %47,9; lehen sektorea ere garrantzizkoa, %22,7, hirugarrena, ordea, nahiko eskasa, %29,4.

Gizonezkoen iharduera-tasak %57,1a jotzen du eta emakumeenak %23,3a. Langabezia-tasei dagokienez, emakumeena nahiko adierazgarria da, %23,8koa, gizonena %16,3koa delarik.

ARABAKO MENDIALDEA ESKUALDEA. 6 udalerririk dira, denak 2.000 biztanle baino gutxiagokoak eta, denen artean, 4.000 biztanle baino gutxiago dituztenak (1.895 gizon eta 1.638 emakume). Biztanle-dentsitate oso txikiak eta adin-egitura zahartua, emakume guztien %50a 45 urtez gorako emakumeak dira. Sex ratioa: 100 emakumeko 115,7 gizon. Lehen sektoreak, nekazaritza hain zuzen ere, garrantzi handia du, %46,9ko portzentaiaz, bigarren eta hirugarren sektoreen aldean (%28,1 eta %25,0, hurrenez hurren) Gizonek %51,6ko iharduera-tasa dute eta emakumeek %18,9koa. Langabezia-tasei dagokienez, emakumeena %18,9koa da eta gizonena %12,8koa.

ERRIOXA ARABARRA ESKUALDEA. Eskualde honetan 15 udalerri daude, denak 3.000 biztanle baino gutxiagokoak eta horietako 9k 500 biztanle ere ez dituzte. Guztira, ez dira 10.000 biztanle. Biztanle-dentsitate urriak eta adin-egitura ez oso zahartua, hortaz, 0 eta 19 urte bitarteko adin-taldean %23,5a sartzen da eta 20 eta 44 urte bitartekoan %30a baino gehiago. Nekazaritzak garrantzi handia du eskualde honetan, bertako biztanleria aktiboaren %26,6ak nekazaritza sektorean lan egiten du eta berorri lotutako eraldaketarako industri sektorean %43,6ak.

Aurreko kasuetan bezalaxe, iharduera-tasak %55,8ra eta %18,3ra iristen dira gizonezkoentzat eta emakumeentzat. Langabezia-tasek, berriz, alde handia erakusten dute, %19,4koa emakumeena eta %8,2koa gizonena.

GORBEIALDEA ESKUALDEA. 5 udalerriz osotua, denak 2.000 biztanle baino gutxiagokoak eta denen artean 4.500 biztanle baino gutxiago biltzen dituzte (2.883 gizon eta 2.636 emakume). Biztanle-dentsitate urriak. Biztanle-egitura ez zahartua, 19 urtez beherako emakume-taldeari, esaterako, %25a dagokio eta 20 eta 44 urte bitarteko emakumeei, berriz, emakume guztien ia %35a. %109,4eko sex ratioa. Biztanleria aktiboaren %45,8ak bigarren sektorean lan egiten duen bitartean, nekazaritza eta abeltzaintza sektorean ari direnak %18,3a baino ez dira. Gizonezkoek %59,3ko iharduera-tasa dute eta emakumeek %24,4koa; langabezia-tasei dagokienez, berriz, gizonezkoena %12,8koa da eta emakumeena %23koa.

KANTAURI ARABARRA ESKUALDEA. Bost udalerri, hauetako lau 10.000 biztanle baino gutxiagokoak. Boston artean ez dira 15.000 biztanle-kopurura iristen. Batzbesteko biztanle-dentsitate urriak. Adin-egitura gaztea, emakumeen artean ia %70 44 urtez beherakoak dira. Sex ratioa: %100,1. Udalerrri hauetako biztanleria aktiboaren %57,5ak bigarren sektorean, industrian alegia, lan egiten du, %30,3ak hirugarren sektorean eta %12,2ak lehen sektorean. %55,7ko iharduera-tasa gizonezkoentzat eta %19,3koa emakumeentzat. Emakumeen langabezia-tasa oso handia da, %27,9, gizonezkoena ez horrenbeste, %14,4.

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA

ARRATIA-NERBIOI ESKUALDEA. 14 udalerririk osotzen dute eskualde hau, denak dira 10.000 biztanle baino gutxiagokoak, berorietako 11k 2.000 biztanle baino gutxiago dituztelarik. Eskualde honetan, guztira, 22.000 pertsona bizi dira, gutxi gorabehera. Biztanle-dentsitate

urriak. Adin-egitura gazte samarra, 44 urte baino gutxiago dituzten emakumeei %60a dagokielarik. Sex ratioa: %102,5. Bigarren sektorean diharduen biztanleria aktiboak garrantzi handia du, %57, Bilbo Handia hurbil dago eta. Nekazaritzan %5,8ak lan egiten du. Iharduera-tasei dagokienez, gizonena %55ekoa da eta emakumeena %18,2koa. Langabezia %16,6koa da gizonen kasuan eta %29,4ekoa emakumeei dagokienez.

BILBO HAUNDIA ESKUALDEA. 19 udalerri osotua, berauetako 13k 1.000 biztanle baino gehiago, baina, 10.000 baino gutxiago dituztelarik, 13on artean 62.000 biztanle. Biztanle-dentsitate handiak. Adin-egitura gazte samarra, 44 urtez beherako emakumeak %65 inguru dira. Sex ratioa: 100 emakumeko 99,8 gizon. Lehenengo sektorean diharduen biztanleria aktiboaren portzentaia txikia da, %2,6, industrian lan egiten dutenena, ordea, %53,7koa, eta hirugarren sektorean, zerbitzuetan alegia, %43,7k lan egiten du, Bilbo hurbil dagoenez, asko bait dira bertaratzen direnak. Gizonezkoen iharduera-tasak %53,2a jotzen du eta emakumeenak %18,4a. Langabeziari dagokionez, gizonezkoen tasa %24,5era iristen da eta emakumeena %34,6ra.

DURANGALDEA ESKUALDEA. 14 udalerri, berauetako 11k 10.000 biztanle baino gutxiago dituzte eta guztira 30.000. Batzbesteko dentsitate handiak. Adin-egitura ez oso zahartua. 20 eta 44 urte bitarteko emakumeei %37a dagokie eta 19 urtez beherakoei %30a. Sex ratioa: %101,1. Industriak garrantzi handia du eskualde honetan, hortaz, 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten 11 udalerri hauetako biztanleria aktiboaren portzentaia nabarmen bat, %65,3, bigarren sektorean ari da; nekazaritzan, aldiz, %4,5a besterik ez. Iharduera-tasei bagagozkie, gizonena %56,7koa da eta emakumeena %20koa. Gizonezkoen langabezia-tasak, bestalde, %13,5a jotzen du eta emakumeenak %29,1a.

ENKARTERRIAK ESKUALDEA. 10 udalerri, denak 10.000 biztanle baino gutxiagokoak, guztira 30.000 pertsona biltzen dituztenak. Batzbesteko biztanle-dentsitate urriak. Adin-egitura nahiko zahartua. 44 urte edo gehiago dituzten emakumeei %45eko portzentaia dagokie. Sex ratioa: %101,3. Nekazaritza sektoreak eragin nahiko handia du eskualde honetan, izan ere, biztaleria aktiboaren %12,8ak berorretan lan egiten bait du, %45ak bigarren sektorean eta %29,2ak hirugarrenean. Gizonezkoen iharduera-tasa %54,8koa den bitartean, emakumeena %17,1ekoa. Langabezia, berriz, %23,3koa gizonen kasuan eta %35,1ekoa emakumeei dagokienez.

GERNIKA-BERMEO ESKUALDEA. 18 udalerri, berauetako 16k 2.000 biztanle baino gutxiago dituzte, guztira 9.000 pertsona biltzen dituztelarik. Erdi-mailako biztanle-dentsitate

ak. Adin-egitura zahartua. 44 urtez gorako emakumeei %50 inguruko portzentaia dagokie. Sex ratioa: %98,5. 16 udalerri hauetako biztanleria aktiboaren %22,1ak lehenengo sektorean lan egiten du, portzentaia horretan arrantzan diharduten kostaldeko zenbait herriren (Elantxobe, Ea...) iharduera ere sartzen delarik. Hirugarren sektorea ere garrantzizkoa da, %44,6, (eskualde honetako erdigune den Gernikaren eraginez). Iharduera-tasa %51,1ekoa da gizonentzat eta %19koa emakumeentzat. Langabezia, berriz, %14ekoa gizonen kasuan eta %18,4ekoa emakumeei dagokienez.

MARKINA-ONDARROA ESKUALDEA. 11 udalerriz osotutako eskualdea, horietako 10ek 10.000 biztanle baino gutxiago dituzte, 8k 2.000 baino gutxiago. Denon artean 17.000 pertsona biltzen dituzte. Batazbesteko biztanle-dentsitate handiak. Adin-egitura gazte samarra. 45 urtez beherako emakumeei %59ko portzentaia dagokie. Sex ratioa: 102,8. Lehenengo sektorean biztanleria aktiboaren %21,4ak lan egiten du, baina Gernika-Bermeo eskualdean bezala, 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerri hauetako zenbaitetan (Lekeitio, Ipazter...) arrantza oso garrantzitsua da.

Bigarren sektorean %39,5ak lan egiten du. Gizonezkoen iharduera-tasak %55,1a jotzen du eta emakumeenak %20,3a. Langabezia %12,4ekoa da gizonen kasuan eta %21,5ekoa emakumeei dagokienez.

PLENTZIA-MUNGIA ESKUALDEA. 15 udalerriz osotutako eskualdea, hauetako 14ren biztanle-kopurua ez da 10.000ra iristen, denon artean 22.000 pertsonatako biztanleria barruhartzen dutelarik. Batazbesteko biztanle-dentsitate handiak. Adin-egitura nahiko gaztea, 45 urtez beherako emakumeak emakume guztien %65 dira. Sex ratioa: %100,2. 14 udalerri hauetako biztanleria aktiboa zerbitzuen sektorean, batez ere, lan egiten du, %51,4ak hain zuzen (eskualde hau Bilbotik gertu dago). Lehenengo sektorean, berriz, %9,8ak dihardu, 14 udalerri hauetako zenbait, kostaldean egonik, arrantzan dihardutela kontutan hartu behar delarik. Iharduera-tasak %52,9a jotzen du gizonezkoentzat eta %20,7a emakumeentzat. Langabeziari dagokionez, gizonena %20,5ekoa da eta emakumeena %25,9koa.

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA

BIDASOA BEHEREA ESKUALDEA. Eskualde honetako 2 udalerriek 10.000 biztanle baino gehiago dituztenez ez ditugu azterlan honetan kontutan hartu, nahiz eta alde honetako zenbait emakume mahainguru batetara etortzeko deia jaso eta bertaratu ziren.

DEBA BEHEREA ESKUALDEA. Bost udalerriz osotua, berauetako lauk 1.000 biztanle baino gehiago eta 10.000 baino gutxiago dituzte. Lau udalerriotan 16.000 biztanle biltzen dira (8.246 gizon eta 8.072 emakume). Batzbesteko biztanle-dentsitate handiak. Adin-egitura gazte samarra. Emakume guztien ia %63k 44 urte baino gutxiago dituzte. Sex ratioa: %102,2. Bigarren sektoreak indar handia du, biztanleria aktiboaren %55,8ak berorretan lan egiten duelarik. Lehen sektoreari dagokion %11,7an Mutriku eta Deba udalen arrantza iharduerak ere sartzen direla kontutan hartu behar da. Gizonezkoek %57,3ko iharduera-tasa dute eta emakumeek %18,9koa baino ez. Langabeziari dagokionez, gizonen tasa %17,7koa da eta emakumeena %31,5koa.

DEBA GARAIA ESKUALDEA. Eskualde honetan 8 udalerri dira, hauetako 5ek 10.000 biztanle baino gutxiago dituzte eta boston artean 13.000 biztanle baino pixkat gehiago biltzen dituztelarik. Biztanle-egitura gazte samarra, emakume guztien %67k 44 urte baino gutxiago bait dituzte. Sex ratioa: %106,7. Industria sektoreak eragin handia du, udalerri hauetako biztanleria aktiboaren %73,2k berorretan lan egiten bait du. Gizonek %56ko iharduera-tasa duten bitartean, emakumeek %26,1ekoa. Langabezia-tasa handiak dira bai gizonezkoentzat, %25,3, eta bai emakumeentzat, %48,4.

DONOSTIALDEA ESKUALDEA. 10 udalerriz osotua, hauetako 5ek 3.000 biztanle baino gehiago eta 10.000 baino gutxiago dituzte, boston artean 23.000 gutxi gorabehera. Biztanle-dentsitate handia. Adin-egitura gazte samarra, emakume guztien %70k 44 urte baino gutxiago dituzte. Sex ratioa: %101,2. Udalerrri hauetako biztanleria aktiboaren %51,3ak bigarren sektorean lan egiten du eta %42,7ak hirugarren sektorean, hau da, zerbitzuen sektorean. %54,8ko iharduera-tasa gizonezkoen kasuan eta %31,5koa emakumei dagokien. %19,5eko langabezia-tasa gizonezkoentzat eta %31,5koa emakumeentzat.

GOIHERRI ESKUALDEA. 20 udalerriz osotua, hauetako 17k 10.000 biztanle baino gutxiago dituzte eta berauetako 13k 2.000 baino gutxiago. 17 udalerriotan 35.000 biztanle gutxi gorabehera biltzen dira. Adin-egitura zahartua, 44 urtez beherako emakumei %60a dagokie. Sex ratioa edo gizonak/emakumeak erlazioa %102,8koa da. Udalerrri hauetako biztanleria aktiboaren %60,4ak bigarren sektorean lan egiten du, %5ak lehen sektorean eta %34,6ak hirugarren sektorean. Gizonezkoen iharduera-tasa %55,9koa da eta emakumeena %21,8koa. Langabezia, berriz, %17,8koa gizonezkoena eta %31,8koa emakumeen kasuan.

TOLOSALDEA ESKUALDEA. 28 udalerriz osotua, hauetako 27 10.000 biztanle baino gutxiagokoak eta 27 hauetako 13k 500 biztanle baino gutxiago dituzte. 27 udalerriotan 26.000 pertsona biltzen dira (14.046 gizon eta 12.862 emakume). Adin-egitura gazte samarra, 45 urtez gorako emakumeak %32 inguru dira. 100 emakumeko 109,2 gizon dira. Industriak eragin handia du, eta biztanleria aktiboaren %57,4ak sektore horretan dihardu. Nekazaritza ere garrantzizkoa da, biztanleria aktiboaren %10,6ak lehenengo sektorean lan egiten bait du. Gizonezkoen iharduera-tasa %56,7koa da eta emakumeena %22koa. Langabeziari dagokionez, gizonen tasak %16,7a jotzen du eta emakumeenak %27,2a.

UROLA-KOSTALDEA ESKUALDEA. 10 udalerri, hauetako 8k 10.000 biztanle baino gutxiago dituzte, 8on artean 21.500 pertsonatako biztanle-kopurua barruhartzen dutelarik. Batzbesteko biztanle-dentsitate handiak. Adin-egitura ez oso zahartua, emakume guztien %65 45 urtez beherakoak dira. Sex ratioa: %106,3. Lehenengo sektorean biztanleria aktiboaren %21,9ak lan egiten du, baina zifra honetan arrantzaleak ere sartzen direla kontutan hartu beharra dago. 8 udalerri hauetako biztanleria aktiboaren %46,9ak, berriz, bigarren sektorean dihardu. Gizonen iharduera-tasa %55,9koa da eta emakumeena %19,8koa. Langabeziari dagokionez, %14,1 gizon eta %30,6 emakume lanik gabe daude.

2.1**SARRERA**

Orain arte euskal emakume baserritarra izan dugu aztergai, baserritar hitza zentzurik zabalean hartuz, hau da, baserritar eta kaletar kontzeptuak aurrez aurre jarri ohi dituen ohizko bitasuna alde batera utzita, gaur egun baserrikoa esaten denean ez bait da nekazari hutsa ulertzen, hau da, baserrian bizi den nekazaria, bizimodu itxi, tradizional eta patriarkalista bati lotuta dagoena.

Baserriko gizartean ere nabari izan dira gizarte osoan gertatutako aldaketa eta transformazioak, hala nola, industrializazioaren aurrerapena, hirien hazkundea, komunikabideen garapena... Egungo industrializazio-ondokoa eta modernizazio-ondokoak ere izan dute eraginik baserriko gizartean, bertako jendea ere prozesu horietako partaide izan denetik, haien ondorioak Euskal Autonomi Elkarre osoan nabari izan bait dira.

Horrexegatik, hain zuzen ere, gaur egun, interesgarriago izan daiteke kale eta baserriaren arteko eremura jotzea, baserria kalearen aurkakotzat hartzen zuten kontzeptu teorikoak erabiltzea baino.

Testuinguru honetan eta azterlan honen lehen zati honetan azaltzen den zenbatezko azterketari jarraituz, atal berezi bat eskaini nahi izan diogu emakume nekazariari. Beste arrazoi batzuren artean, nekazaritza gizartean gertatzen direnetatik aparte utzi ohi den sektorea delako, ez zaiolako berez dagokion garrantzia aitortzen, agian, nagusi diren hiriguneetatik postal baten moduko ikuspegitik begiratzen zaiolako, eta nekazaritza sektoreari hala begiratzen bazaio, zein ote da nekazaria den emakumeari atxekitzen zaion tokia?

Gure aldetik apal-apal hurbiltzen gatzazkio nekazaritzari, zertzelada batzu besterik ez ditugu azaldu nahi, emakumeari batez ere dagozkion zenbait arazoei buruzko gogoeta txiki bat sortarazi nahi dugu. Nekazaritza, oro har, aztertu beharko litzateke sektorearen zergatiak ulertu ahal izateko, baina horrek gure helburuetatik urrundu egiten gaitu.

Kapitulu honetan, emakumeak familia mailako nekazaritzan izan ohi dituen zereginak aztertuko ditugu, hots, bere egoera ekonomikoa, lan baldintzak eta gizarte nahiz lege-baldintzak.

Gai honi ekiterakoan, ordea, oztopo nagusi bat aurkitzen dugu, nekazaritzan diharduen emakumea zifren bidez aztertzeko iturri baliagarrien arazoa, hain zuzen; horregatik aipatuko dugu ondoko testua, arazo honen koska azaltzen duena:

“Ohizko azterketa ekonomiko, historiko eta soziologikoek ezer gutxi balio dute hirietako nahiz baserrietako emakumeen egoera eta eragina ulertu ahal izateko; beraz, emakumee-kiko iluntasun edo ezjakite hau gainditzeko baliagarriak gerta daitezen lan tresnak aurkitu eta garatzeko ahaleginak egin behar dira. Hiritar guztien bizitza ulertzeko, objektuzkoa baino ikuspegi zabalagoa izan behar dugu...” Kandiyuti, Denis. “Emakumea nekazaritzako ekoizpideetan”. UNESCO, Paris 1.986.

Ohizko estatistika metodoek, oro har, ez dira emakumearengana heltzen, ekoizkortasun eta errentagarritasuneko parametroak erabiltzen bait dituzte, hots, lehen mailakoak, baina ez bigarren mailakoak, emakumeei atxekitakoak bezalakoak, alegia. Haien zeregina ilunpean eta ezkutuan uzteko joera oso arrunta da, nekazaritzan egiten duten lana etxeko lanaren osagarri gisa hartu ohi da eta.

2.2

EMAKUMEEN ZEREGINA NEKAZARITZAN

Aldez aurretik, komenigarria da euskal nekazaritzaren berezitasun batzu aipatzea. Oro har, E.A.E.ko nekazaritza familiarteko nekazaritza da, euskal nekazaritzan ezin esan daiteke oinarrizko ekoizpen unitatea enpresa denik, edota, bestelako ekoizpen sektoreetan ez bezala, kontu-unitate gisa dirua soilik erabiltzen denik.

Familiako nekazaritza enpresariaren familiak bakarrik edo ia bakarrik egindako lanaz burututako ekoizpen iharduera dela esaten da. Hau da, enpresa eta familia berdinak dira eta nor bakoitzaren zeregin ekonomikoa familia barnean dagokion zereginarekin bat dator.

Familiako enpresan, halaber, ez da kontratu-harremanik, ez dago garbi kapitalaren jabea eta eskulanaren arteko bereizketa, eta gastuak eta etekina ere ez dira ekarritako lanaren arabera banatzen. Horrela bada eta horrelaxe bakarrik uler daiteke emakumeei nekazaritzan dagokien zeregin ekonomikoa eta lan mailakoa.


Badira beste xehetasun batzu E.A.E.ko emakume nekazarien egoera sozio-ekonomikoa ulergarriagoa egiten digutenak. Nekazaritzaren abiabide tekniko-ekonomikoak, bestalde, ez berdinak dira, eta horrela, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Kantauri aldean abeltzaintza eta

baratzaintza dira nagusi, ustiapen-arloak txikiagoak dira eta dedikazio iraunkorragoa eskatzen dute.

Arabako Lurralde Historikoa dugu indartsuena nekazaritzari dagokionez, nekazaritza kapitalizatuagoa da eta ustiapen-arloak zabalagoak dira. Patata, laborea, erremolatxa, lekadunak eta mahatsa dira nagusi. Gehienetan ez du eskulan askorik eskatzen, denboraldian izan ezik.

10 TAULA. E.A.E.ko nekazaritzaren ezaugarri orokorrak

LURRA FAKTOREA				KAPITAL FAKTOREA				LANA FAKTOREA				ERAKUNDE FAKTOREA							
	USTIAP-ARLO BAKOITZ.	USTIAPEN-ARLO	USTIAPEN-ARLO	%			ABELTZAINZA UNITATEAK (%)				NUAK LAN MOTAREN			NLE EDUKITZE ERREGIMENA (%)					
	BATAZBESTEKOA (Ha)	BAKOITZ. BATAZBESTEKOA	BAKOITZEKO	MEKANIZAZIOA-TRAKTOREAK			BETABEREAK		ARDIAKTXERRIAK HEGAZTIAK		ARABERA (%)			JABETZA	ERRENTAN	GASAILA	HERRILURRA	BESTELAKO	
	(Guztiz. luzazabaler, 1982)	NLE (Ha)	LURZATI-KOPURUA	-25 CV	25-60 CV	+ 60 CV					ENPRESARIAK	FAM. LAGUNT.	SOLDAT. LANG.					ERREG.	
ARABA	Arabako Ibarrek	59,00	26,15	14,58	0,08	6,69	18,95	2,03	5,01	5,15	0,44	55,29	35,29	9,56	38,69	59,39	1,72	0,02	0,16
	Arabako Lautada	43,03	21,59	12,09	0,14	17,49	29,64	3,43	7,30	19,75	4,82	48,92	36,69	14,39	38,76	56,99	0,87	2,11	1,27
	Arabako Mendialdea	57,31	13,49	16,08	0,02	5,18	11,53	0,97	3,24	6,98	0,41	50,53	40,60	8,72	45,95	45,00	2,14	5,36	1,56
	Errioxa Arabarra	13,16	8,32	15,45	1,40	17,44	8,24	0,25	5,25	3,58	6,21	52,26	26,17	21,49	74,93	17,82	6,33	0,82	0,10
	Gorbeialdea	47,70	13,40	20,30	1,72	4,90	5,11	4,08	7,85	4,48	0,46	35,64	47,39	17,10	58,49	36,76	0,02	4,33	0,41
	Kantauri Arabarra	21,85	9,73	8,53	1,76	4,71	3,41	5,97	11,94	3,99	1,59	46,20	47,22	6,58	78,33	20,12	0,01	0,98	0,56
BIZKAIA	Bilbo Handia	4,96	2,01	2,78	9,56	6,09	1,19	8,74	1,09	2,01	6,95	52,74	42,31	4,98	64,33	33,57	0,15	0,05	1,91
	Bizkaia Kostaldea	7,00	2,74	5,11	22,02	8,72	3,01	17,38	3,32	11,38	23,09	50,68	44,04	5,25	79,59	19,33	0,12	0,03	0,92
	Enkarterriak	11,78	4,39	4,97	6,03	5,23	1,86	10,11	4,33	2,59	1,30	53,12	43,35	3,53	51,42	48,10	0,02	0,26	0,22
	Ibaizabal Nerbioi	10,16	2,58	5,55	14,90	5,33	1,19	9,40	9,22	3,48	5,51	48,06	44,19	7,75	75,02	24,53	0,06	0,05	0,35
GIPUZKOA	Donostialdea	9,95	4,06	2,75	6,44	5,23	0,83	8,17	7,29	23,42	6,90	42,12	53,61	4,27	75,94	23,40	0,00	0,01	0,65
	Deba Garaia	12,01	3,43	6,17	7,56	1,31	0,24	3,18	7,39	3,17	26,93	42,09	55,18	2,67	89,27	9,90	0,05	0,67	0,11
	Goiherri	13,40	3,64	5,31	6,31	2,40	0,95	4,97	7,92	1,93	4,96	44,07	53,65	2,27	86,73	13,13	0,03	0,00	0,13
	Tolosaldea	14,59	5,56	7,14	8,22	3,57	0,44	7,87	7,89	5,41	4,14	38,69	58,88	2,43	79,90	19,25	0,66	0,18	0,02
	Urola Deba	13,68	5,99	4,47	13,84	5,72	1,55	13,45	10,96	2,66	6,30	40,69	57,53	1,70	76,59	21,20	0,01	0,00	2,20



- A. NEKAZARITZA OROKORRA
- B. ASKOTARIKO HAZKUNTZA
- C. HAZKUNTZAK ETA ABELTZAINZA
- D. BARATZAINZA
- E. ABELTZAINZA EZBERDINAK
- F. ABELTZAINZA
- G. HAZKUNTZA IRAUNKORRAK

Biztanleria aktiboa bere osotasunean hartuz gero, emakumeen lanari %2,4a baino ez da-
gokio, gizonezkoei, aldiz, %3,9a (91eko 1. hiruhilabeteko PRA. EUSTAT). Hala ere oso gu-
txi dira emakumeen zuzendaritzapean dauden nekazaritzako ustiapenak. Ustiapen hauen
zuzendari guztietatik %18,6 besterik ez dira emakumeak.

11. TAULA Enpresarien banaketa, adinaren eta sexuaren arabera (% kotan)

	G		E		GUZTIRA		-25 URTE		25-44 URTE		45 -54 URTE		55-64 URTE		65 EDO GEHIAGO	
							G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
E.A.E.	31.948	(81,4)	7.375	(18,6)	100		0,5	0,5	15,9	11,1	26,3	18,5	29,4	27,5	27,9	42,4
ARABA	6.384	(88,8)	801	(11,2)	100		0,7	0,4	22,0	10,9	28,9	20,2	28,8	30,1	19,4	37,4
BIZKAIA	15.864	(76,7)	4.818	(23,3)	100		0,3	0,4	13,1	11,1	25,3	17,8	30,5	26,7	30,7	43,9
GIPUZKOA	9.700	(84,7)	1.756	(15,3)	100		0,5	0,5	16,5	11,1	26,4	19,5	27,9	28,4	28,8	40,4

Iturria: Norberak egina 1982ko Nekazaritza Erroldako datuetan oinarriturik.

Datu hauen arabera, Euskadiko nekazaritza-ustiapenetan zuzendari lanetan ari diren emakumeak oso gutxi dira, Estatuko gainontzeko tokietan bezalaxe, eta egoera hau ustiapenen tamainuari eta haien norabide tekniko ekonomikoari erabat loturik dago, gainera.

Hortaz, Arabako Lurralde Historikoan ageri zaigu nekazaritza arloko emakume enpresarien portzentaiarik txikiena. Eta Arabako nekazaritza dugu arlorik zabalenetan lantzen dena eta, halaber, oso mekanizaturik dagoena.

Gipuzkoan gehixeago dira enpresariak diren emakumeak eta Bizkaian are gehiago, nekazaritzako enpresarien laurdena emakumezkoak bait dira. Kontutan izan behar dugu lurralde bi hauetako nekazaritza arlo txikiagoetan lantzen dela eta abeltzaintza edo nekazaritza intentsiboa oso garrantzizkoak direla, aurrerago aipatuko ditugun beste zenbait faktore ahaztu gabe.

Dena den, gizon eta emakume hauen funtsezko lana ez da beti nekazaritza izaten ondorengo taulan erakusten den bezala:

12. TAULA **Enpresarien dedikazioa nekazaritzan, sexuaren arabera eta lurralde historikoka. (% horizontalak)**

	FUNTSEAN NEKAZARITZAN LAN EGITEN DU		FUNTSEAN NEKAZARITZAK KANPO LAN EGITEN DU				BESTELAKO DEDIKAZIOA		GUZTIRA	
			NEK. IHARD.		NEK.KANP. IHARD.					
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
E.A.E.	18,9*	36,0	0,5	2,0	12,1	38,8	68,6	23,2	7.375	31.948
ARABA	17,6	51,9	0,5	2,2	8,3	27,3	73,5	18,6	801	6.384
BIZKAIA	17,7	27,7	0,3	1,8	12,9	43,2	69,1	27,2	4.818	15.864
GIPUZKOA	22,7	39,3	0,6	2,0	11,8	38,9	64,9	19,7	1.756	9.700

Iturria: Norberak egina 1982ko Nekazaritza Erroldako datuetan oinarriturik.

Berriro ere emakumeen partaidetza urria nabarmentzen da. Euskal Autonomi Elkarteko nekazaritzako enpresarien bi herenak, oro har, nekazaritzarekin zerikusirik ez duten bestelako lanetan ari dira, batez ere; hau da nekazaritza mistoa edo txandakakoa da nagusi. Nekazaritzako enpresarien artean, funtsean nekazaritzan dihardutenak %18,9 besterik ez dira emakumeei dagokienez. Gainontzekoek bestelako dedikazioren bat izan ohi dute eta dedikazio hori etxeko lana delakoan gaude.

Datu hauek lurralde historikoen arabera aztertuz gero, ezberdintasun nabarmenak ere badirela ikus dezakegu; Araban esate baterako, gizonezkoen artean, nekazaritzako enpresarien erdiak baino pixkat gehiago nekazaritzan lan egiten dute eskusiboki, baina emakumeen kasuan, %17,6a besterik ez dira nekazaritzan batez ere aritzen.

Bizkaian, berriz, nekazaritza arloko enpresarien %27,7ak baino ez du nekazaritza iharduera nagusitzat; hiru lurralde historikoetako portzentaiarik txikiena dakusagu emakumeei dagokienez, kasu honetan nabarmen jaisten bait da %17,7raino.

Gipuzkoan, nekazaritza arloko lau enpresarietatik batek nekazaritzan batez ere dihardu. Hemen emakumearen partaidetza handiagoa nabari da (%22,7) nekazaritza arloko enpresarien artean.

Hau da, bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan sarritan ageri zaizkigu dedikazio mistoa edo txandakako egoerak, non ustiapenen zuzendaritza emakumeen esku uzten omen den, baina, beti ere, gizonak nekazaritzaz kanpo bestelako lan aukerak izaten dituelako.

Aurrera eginda, nekazaritza arloko enpresariak diren gizon eta emakumeen adinari erreparatuko diogu.

13. TAULA **Enpresarien adina, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera (% horizontalak)**

	- 25 URTE		25-44 URTE		45-54 URTE		55-64 URTE		65 EDO GEHIAGO		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
E.A.E.	0,5	0,6	14,8	11,7	25,9	25,2	34,9	37,4	23,9	25,0	100	100
ARABA	0,9	2,8	23,7	12,8	31,6	31,2	32,7	35,5	11,0	17,7	100	100
BIZKAIA	0,2	0,4	9,1	10,3	23,0	24,8	37,2	38,2	30,4	26,3	100	100
GIPUZKOA	0,4	0,2	13,8	14,3	24,4	23,9	33,9	36,7	27,5	24,9	100	100

turria: Norberak egina 1982ko Nekazaritza Erroldako datuetan oinarriturik.

Taula honetan argi eta garbi azaltzen da nekazaritza arloko enpresarien zahartzea, gehienak 55 urtez gorakoak bait dira, Bizkaiko Lurralde Historikoan bereziki.

Zahartze hau are nabarmenagoa da emakumeen kasuan, eta datu honen aurrean, nekazaritza arloan zuzendariak diren emakume asko alargundu edo senarra ezindua gertatuz gero bihurtu direla zuzendari pentsa genezake.

Lehenago ere aipatu arren, berriro esan beharra dago estatistikak ez direla tresna egokiak emakumeari nekazaritzan dagokion partaidetza neurtzeko. Eta adibide gisa zera aipa genezake: Bizkaia eta Gipuzkoa dira, hain zuzen ere, aukerako edo dedikazio partzialeko nekazaririk gehien daudeneko lurraldeak, bertan abeltzaintzan eta laborantza intentsiboan dihardute, batez ere, eta etxetik gertu industriguneak izanik, gizonen industrian lan egiten dute, abeltzaintzak emakumearen lanari esker dirauelarik.

Gertaera hau ez da behar bezala aztertu oraindik, eta azterketa sakon bat eskatzen du.

Emakumeen enplegua are kolokakoago edo prekarioagoa da baserri arloan, gizonen bestelako lanetara doaz eta emakumeek eusten diete nekazaritza eta abeltzaintza arloetako us-tiapien txikiei, horrenbestez, dedikazio handia behar duten iharduerei txandaka ekiten diotelarik, epe luzera erabat nekosoak izan daitekeen dedikazioa, eta gainera, azken finean, nekazaritzari erabat edo funtsean loturik lan egiten dutenentzako kaltegarria gerta daitekeena.

Beste alde batetik, familiaren ikuspegitik, emakumeak betidanik lagundu du baserriko lane-tan, alabaina, emakumearen lana ez da horren begibistakoa gertatu eta ez da behar be-

zala goraipatua izan: emakumeari ez zaio titulartasun egoerarik aitortu, ez eta erabakiak hartzeko autonomiarik ere, eta askotan, nekazaria eskubide osoz izatearen abantailak ere ez, aspaldidaniko tradizio patriarkalista irauneraziz.

Senitarteko laguntzaileen gaia aztertuz gero errazago uler daiteke arazo hau.

2.4

SENITARTEKO
LAGUNTZAILEA

“Senitarteko laguntzailea”, Nekazaritzako Erroldan emandako definizioaren arabera, dirurik jaso gabe ustiapenean etengabe edo noizean behin lan egiten duen pertsona da, enpresaria bera salbuetsita. Hots, nekazaritza arloko enpresariaren familiak soldatarik jaso gabe burutzen duen lana dugu.

14. TAULA **Famili laguntzak dedikazioaren eta sexuaren arabera lurralde historikoka. (% horizontaletan)**

	GUZTIRA		FUNTSEAN USTIAPENEAN LAN EGITEN DUTE		FUNTSEAN USTIAPENETIK KANPO LAN EGITEN DUTE				BESTE DEDIKAZIO BAT	
					NEK. IHARD.		NEK. KANP. IHARD.			
					G	E	G	E		
E.A.E.	16.620 (48,0)	18.006 (52,0)	31,2	34,4	2,1	0,2	45,9	7,1	20,8	58,3
ARABA	3.600 (52,3)	3.276 (47,7)	34,0	23,7	3,4	0,3	37,6	4,1	29,0	71,9
BIZKAIA	6.309 (45,0)	7.711 (55,0)	25,3	34,7	1,8	0,2	49,5	7,4	23,4	57,7
GIPUZKOA	6.711 (48,9)	7.019 (51,1)	39,2	38,9	1,7	0,2	46,9	8,3	16,2	52,6

Iturria: Norberak egina 1982ko Nekazaritza Erroldako datuetan oinarriturik.

Nekazaritzan lan egiten duten emakumeen kopururik handiena talde honetan agertzen da, hau da, senitarteko laguntzaile gisa, eta honek garbi asko erakusten ditu sexu arrazoizko ezberdintasunak nekazaritzako iharduerei dagokienez.

Senitarteko laguntzaile gisa ari diren emakumeak (%52), hala diharduten gizonezkoak (%48) baino gehiago dira.

Arazo honi lurralde historikoen arabera heltzen badiogu, zenbait berezitasun ikus ditzakegu: Bizkaian eta Gipuzkoan dira ugariena senitarteko laguntzaile gisa ari diren emakume-

ak, ustiapenen orientabide tekniko-ekonomikoarengatik, batez ere, eta arlo txikiagoak lantzen direlako, izan ere, aukerako nekazaritza gehiago lantzen da eta. Hortaz, senitarteko laguntzaile gisa diharduten gizonezkoen ia erdiek ustiapenetik kanpo lan egiten dutela ikus dezakegu, senitarteko laguntzaile gisa aritzen diren emakumeak, ordea, beste dedikazioaren bat izan ohi dute, eta lehenago ere esan bezala, seguruenik etxeko lanetan ari dira.

Beste alde batetik, emakume hauetako gehienak ezkontzaren bidez heltzen dira nekazaritza eta ez eurek erabakita. Hortik sortzen da emakumeei nekazaritzan atxeki ohi zaien bigarren mailako zeregina, nahiz eta denok dakigun emakumearen lana funtsezkoa izan ohi dela senitarteko ustiapenen barne funtzionamendua bermatzeko.

Nekazaritzan, batez ere, lan egiten duten senitarteko laguntzaileei dagokienez, adina delako aldagaia ere kontutan hartzeko modukoa da, zeren senitarteko laguntzaile gisa diharduten gizonezkoak adinean aurrera egin ahala gutxituz doazen bitartean, emakumeen kasuan alderantziz gertatzen bait da. Zenbat eta adintsuago, orduan eta emakume gehiago senitarteko laguntzaileen artean. Nekazaritza arloko enpresarien emazteak dira, dudarik gabe, talde honen oinarria, eta haiekin batera, senitarteko gainontzeko emakumeak (alabak, arrebak, ahizpak, ama, etab.). Senitarteko laguntzaileen taldea, oro har, enpresariak diren emakumeena baino gazteagoa da.

15. TAULA **Ustiapenean batez ere lan egiten duten senitarteko languntzaileak adinaren eta sexuaren arabera lurralde historikoka (% horizontalak)**

	GUZTIRA				- 25 URTE		25- 44 URTE		45 -54 URTE		55-64 URTE		65 EDO GEHIAGO	
	AB.	GIZONAK	AB.	EMAKUMEAK	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
		%		%										
E.A.E.	5.182	(45,6)	6.185	(54,4)	38,3	7,5	31,2	26,2	12,8	31,1	10,2	25,7	7,5	9,5
ARABA	1.224	(61,2)	777	(38,8)	43,7	7,2	36,5	31,4	8,0	35,1	8,6	21,4	3,2	4,9
BIZKAIA	1.595	(37,3)	2.679	(62,7)	28,2	4,2	33,6	22,4	16,4	32,9	14,2	30,3	7,6	10,1
GIPUZKOA	2.363	(46,4)	2.729	(53,6)	42,3	10,8	26,7	28,5	12,8	28,1	8,4	22,3	9,7	10,3

Iturria: Norberak egina 1982ko Nekazaritza Erroldako datuetan Oinarriturik.

2.5

SOLDATAPEKO
EMAKUMEAK

Soldatapeko pertsona finkoak, hau da, urtean zehar enplegu bat izanik soldata bat jasotzen dutenak oso gutxi dira E.A.E.ko nekazaritzan, eta ia bat ere ez emakumeen artean, eta hala da senitarteko euskal nekazaritzak enplegurik sortzen ez duelako eta, sortzekotan, denboraldikoak direlako.

16. TAULA Soldatapeko biztanleria nekazaritzan, adina, sexua eta lurralde historikoaren arabera (balio absolututan)

	GUZTIRA		16-19 URTE		20-24 URTE		25-44 URTE		45-54 URTE		55 ETA GEHIAGO	
	GIZONAK	EMAKUMEAK	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
E.A.E.	1.139	152	46	8	112	27	471	38	303	41	207	38
ARABA	349	41	8	–	20	10	168	10	85	9	68	12
BIZKAIA	563	99	28	8	64	16	221	24	166	30	84	21
GIPUZKOA	227	12	10	–	28	1	82	4	52	2	55	5

Iturria: Norberak egin 1982ko Nekazaritza Erroldako datuetan Oinarriturik.

Nolanahi ere, emakumeak soldatapeko nekazari gisa lan egitea horren bitxia bada, ez da lan mota honen urritasunagatik bakarrik, arrazoi nagusia nekazaritza sektoreari, oro har, datxekion sexuarengatiko egiturazko bereizkerian bait datza.

2.6

EMAKUMEEN PARTEHARTZEA
IHARDUKETA
KOLEKTIBOETAN

Beste batzuren artean iharduketa kolektiboak ere bereziki aipatu nahi izan ditugu, eta hain zuzen ere, lanbide-interesak defendatzeko antolamenduaren eremuan garatzen direnak, hau da, iharduketa sindikala.

Eta aurrera egin baino lehen, ohar bat: E.A.E.ko nekazarien sindikalismoa senitarteko nekazari txiki eta ertainen interesen alde diharduen sindikalismoa dela gogoratu beharra dago.

Ez diogu baserri arloko sindikalismoa aztertzeari ekingo, azterlan honen xedea bestelakoa bait da, hala ere, lagungarria gerta dakiguke haren ezaugarri batzu azaltzea.

E.A.E.an Bizkaiko EHNE, Gipuzkoako EHNE eta Araban UAGA daude, hiruek defendatzen dituzte senitarteko nekazaritzaren edo azienda txikien jabeen interesak, nahiz eta ezberdintasunik ere baduten, batez ere planteamendu ideologiko batzutan eta lurralde historiko bakoitzeko ustiapenen orientabide tekniko-ekonomikoa ere ezberdina delako.

17. TAULA **Nekazarien afilizio sindikala lurralde historikoka**

	FUNTSEAN NEKAZARITZAN DIHARDUTENAK						NEKAZARIEN SINDIKATUETAN AFILIATUAK					
	GIZ		EMAK		GIZ/EMAK		GIZ		EMAK		GIZ/EMAK	
		%		%	GUZTIRA	%		%**		%	GUZTIRA	%
E.A.E	11.514	100	1.392	100	12.906	100	4.905	42,6	463	33,2	5.368	41,6
ARABA	3.311	28,8	141	10,1	3.452	26,7	1.669	50,4	106	75,2	1.775	51,4
BIZKAIA	4.390	38,1	853	61,3	5.243	40,6	1.523	34,7	261	30,6	1.784	34,0
GIPUZKOA	3.813	33,1	398	28,6	4.211	32,7	1.713	44,9	96	24,1	1.809	42,9

** % ak lansaio osoko nekazariak oinarritzat harturik zenbatzen dira sexuaren arabera.

Aurreko taulan agertutako datuak nahiko adierazgarriak dira, ia ez dute azalpenik behar. Arabako Lurralde Historikoan, nekazarietako erdiak UAGA izeneko nekazarien sinsi-katuan daude afiliaturik, nekazaritza arloko enpresariak diren emakumeetako hiru laurdenak bezalaxe. Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, afiliazio-maila dexente urriagoa da. Sexua aintzat harturik, berriro ere sindikatu-etako afiliatuen artean, oro har, emakume gutxi ikus dezakegu, baina hau nekazaritzan emakume gutxi diharduelako gertatzen da gehien bat. Beste alde batetik, gehienetan familia bakoitzeko kide bat baino ez da afiliatzen, eta hori familia-burua izan ohi da. Nekazarien sindikatuek, oro har, euren afiliatuengandik jasotako kuoten bidez autogestio-natzen dira, laguntza ofizialak ere izan arren. Hortaz, gero eta zerbitzu gehiago eskaintzen dizkie afiliatuei, gero eta gehiago eta gero eta hobeagoak, gainera. Beste batzuren artean hurrengo zerbitzuok eskaintzen dira: lege eta zerga arlo-etako aholkularitza, zerbitzu tekniko ezberdinak, aseguru-zerbitzuak, nekazariak erabili ohi dituzten gaien salmenta, etab. eta azken bi urteotan emakumeei bereziki zuzendutako zenbait ihar-duera ere antolatu dira. Ihardutze-modu hau ez da horren berezia, ez eta nekazarien sindikatuena bakarrik, oso za-balduta bait dago sindikalismoaren arloan. Sindikalismo hutsa atzeraka egin du, edo hobe-to esanda, gizarte garapen maila bat erdietsi du, hau da, lan eskakizunak edo antzerakoez gainera, euren afiliatuen beste beharrian batzuri ere erantzuten diete.

Alabaina, guzti honek badu akatsik, afiliaturik ugariena afiliatu funtzionala dela, alegia, eta ez afiliatu militantea, eta horren zergatia zerbitzu-eskaintzan datza hain zuzen.

Dena den, orain arte, behinik behin, nekazarien sindikatuek ez diote jaramonik egin baserri arloko alde femeninoari. Azken bi urteotan izan da halako hurbiltze-saiotxoren bat, baina emakumeek ez dute parte hartzen (edo nekazarien sindikalismoa arrotz suertatzen zaizkie), gizonezkoen kontu hutsa balitz bezala, aspaldidaniko kultura sexistaren ondorioz, noski.

2.7

NEKAZARIAK DIREN EMAKUMEEN LEGE-ESKUBIDEAK

Espainian indarrean dagoen Konstituzioa, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunari dagokionean, behinik behin, Europako Konstituzioen artean aurreratuenetakoa dela esan daiteke. Hortaz, gogora dezagun Europako Konstituziorik berriena dela eta, beste alde batetik, nahiko abstraktoa eta orokorra dela bere xedapenetan.

Hala ere, duela urte gutxira arte, oraindik ere, sexu arrazoiengatiko bereizkeria nabarmenak izan dira espainiar zuzenbidean.

Guzti honek, praktikan, zera esan nahi du, xedapenak onak direla, baina garrantzizko akatsak dituztela. Hau da, Konstituzioak arazo guzti hauek jasotzen baditu ere, beste kontu bat da legearen erabilera, legearen garapena, esan nahi bait da, bide egokitik abiatu garela, baina, ibilbidea luzea eta berria dela.

2.7.1

EZKONTZA ERREGIMEN EKONOMIKOAK

Europako herrialde nagusien legerietan agertzen dira ezkontza erregimenak, hemen hiru multzotan sailkatuko ditugunak:

- Irabazpidezko sozietatea.
- Partaidetza erregimena.
- Ondasunen banaketaren erregimena.

IRABAZPIDEZKO SOZIETATEA

Erregimen-mota honetan hiru ondasun-mota daude: senarrak ekarritakoak, emazteak ekarritakoak eta amankomunak eta ezkondu ondorengoak direnak. Azken hauetan ez dira dohaintzak edo jaraunspenak sartzen.

Senar-emazteek ezkondu aurretik ekarritako ondasunak ondasun bereziak dira.

Espainiako legea 1.981ean aldarazi zen. Erregimen honetan, ezkonduetako emakumearen gaitasuna egintza juridikoen bidez aintzatesten da. Egintza juridikoek iratxikitzen dizkion ahalak erabil ditzake. Ezkontza erregimenak eskuratzen dizkion eskubide ekonomikoak baliarazteko ahalmena du.

PARTAIDETZA ERREGIMENA

Ezkontide bakoitzari besteak erregimen honek indarrean dirauen artean lortutako irabazietan parte hartzeko eskubidea ematen dio.

ONDASUNEN BANAKETAREN ERREGIMENA

Ezkontideek hitzartu behar dute. Erregimen honen bidez, ezkontza sozietateko kide bakoitzak ezkondu aurretik zeuzkan ondasunen jabetzari eutsi eta bere kabuz kudeatzeko aukera du, hala nola ezkondu ondoren eskuratutako ondasunei dagokienean.

Ezkontza erregimenen berezitasunak alde batera utzirik, emakumeak eta gizonak eskubide eta erantzunbehar berberekin heltzen dira ezkontzara.

Baina betiko leloa, legeak deuseztatu egin ditu sexuen arteko bereizkeriak, berdintasuneko zuzenbidea nagusi den egoeran gaude, alabaina, bestelakoa da "egitatezko egoera". Zuzenbidea, askotan, konstituzio-xedapenei baino usadio eta ohiturei jarraiki erabiltzen da, eta gainera gizaki bakoitzari, arlo publikoan nahiz pribatuan (gizartean, lanean, hezkuntzan, ezkontzan, familian, norbere arloan), dagokion zeregina garrantzitsuagoa edo nabarmenagoa den ere kontutan hartzen da.

Eta berriro ere azpimarratzen dugu hau, zeren legearen beste aldean jarri beharra daukagu, alde praktikoan, alegia, eta zuzenbidezko nor ezberdinak nola atontzen diren edo nola atontzen uzten dieten eguneroko bizimoduan kontutan hartu beharra dago, ea gizakiek

printzipioz eurenak diren eskubide eta erantzunbehar horiek behar bezala erabiltzen dituzten ala gehiegikeriaz edo modu okerrez.

Dibortziatutako emakumeen edo alarguntsen eskubideei dagokienez, ezkontzean hitzartutako erregimen ekonomikoaren arabera dira.

Oro har, irabazpidezko erregimena da ohizkoena. Nolanahi ere, Araba eta Bizkaiko Lurralde Historikoetako alde batzutan oraindik indarrean dagoen foru zuzenbide zibilari lotutako zenbait berezitasun ere badira (1.959ko uztailaren 30eko Legea), familia babesteko, familiaren ondarearen banaketa edo zatiketa eragozteko baliabide bereziak ezartzen dituen.

Amaitzeko, beraz, ezkontza erregimenei dagokienez, nekazaritzan diharduen emakumeak edozein emakumek dituen eskubide berberak dituela esan genezake. Ezberdintasunak sektorearen ezaugarrien aldetik, titulartasunen besteganaketaren aldetik eta jaraunspenen banaketatik etor dakizkieke, eta honek eragin handiagoa du baserri munduan, zeren lurra ekoizpen-tresna da, batez ere, eta ez trukerako moneta hutsa. Horrez gainera, etxearekiko, baserriarekiko, lurrekiko lokarriak oso sendoak izan ohi dira, eta baserrimina eta sustraiak oso sakonak eta ñabarrak. Kontutan izan behar da, familiaren ondareak, sarritan, gizaldiz gizaldi eskualdatu direla eta gizaldi horietakoek ahalegin handiak egin behar izan dituztela ondare horri eutsi edota aberasteko.

2.8

NEKAZARIAK DIREN EMAKUMEEN GIZARTE-ESKUBIDEAK

Egungo gizartearen ezaugarri demografikoetako bat biztanleriaren zahartzea da, eta horrek gero eta langile pasibo gehiago izatea dakar, apurka apurka langile aktiboak beste izate-raino.

Baserri munduan are latzagoa da arazo hau, nekazarien erregimen berezian afiliatutakoen artean bi herenak pentsiodunak direla esaten da.

Gizarte eskubideak, hala nola, gaixotasun aseguruia, elbarritasunerakoa, jubilaziorakoa, alarguntasun pentsioak edota amatasunagatikoa aseguruia, istripuagatikoa, etab...asko aldatzen dira herrialde batetatik bestera, lanbide estatutu batetatik bestera.

Nekazarien erregimen bereziaren lehen aurrerakinak 1931.ean aurkitzen ditugu, Nekazarien Lan Istripuen Legean, hain zuzen. 1943an, berriz, lege horrek nekazaritza arloko senitarteko-entzako eta zaharrentzako sorospideen derrigorrezko erregimena ere barruhartzen du. 1959an, bestalde, "Mutualidad Nacional de Previsión Agraria" delakoa sortu zen, bi urte igaro ondoren izena aldatu eta "Mutualidad Nacional de Previsión Social Agraria" deituko dena. Harrez gero, zenbait aldaketa izan dira uztailaren 23ko 2.123/71 eta abenduaren 23ko 3.772/72 dekretuek arautzen duten egungo nekazarien erregimen berezira iritsi arte.

Erregimen berezi honen izan beharra argitzeko hainbat arrazoi ematen dira, eta nekazaritza sektorearen berezitasunak aipatzen dira gehien bat. Hala eta guztiz ere, erregimen honek eskaintzen duen gizarte-babesa Erregimen Orokorreko langileei aitortzen zaiena baino askoz ere eskasagoa da.

18. TAULA Nekazaritzako Erregimen Bereziak besteren konturako eta norbere konturako langileei eskainitako prestazioak Erregimen Orokorraren aldean

ERREGIMEN OROKORRA	INOREN KONTURAKO NEKAZARIAK	NORBERE KONTURAKO NEKAZARIAK
OSASUN LAGUNTZA	BERDINA	BERDINA
LANERAKO EZGAITASUN IRAGANKORRA	BERDINA	BORONDATEZKO HOBE-KUNTZA GISA BAINO EZ DA ONARTZEN 6 HILABETE LEHENAGOKO KONTRATAZIO ERANSARRIAZ EDO 9 HILABETEKOAZ AMATASUNA DENEAN HILEKO OINARRIAREN % 75A BAJAKO 15. EGUNETIK AURRERA ORDAINTZEN DA.
BEHIN BEHINEKO ELBARRITASUNA	BERDINA	EZ ZAIE AITORTZEN
BEHIN BETIKO ELBARRITASUNA	BERDINA	BERDINA BEHIN-BETIKO ELB. AGATIKO %20KO OSAGARRIARI DAGOZKION BALIZKOAK IZAN EZIK
ELBARRITASUNIK GABEKO LESIO IRAUNKORRAK	BERDINA	BERDINAK
JUBILAZIOA	EZ DA JUBILAZIO AURRERATURIK	EZ DA JUBILAZIO AURRERATURIK
HERIOTZA ETA BIZIRAUPENA	BERDINA	BERDINA
FAMILIARENTZAKO PRESTAZIOAK	BERDINA	BERDINA
GIZARTE ZERBITZUEN PRESTAZIOA	BERDINA	BERDINA

Taula honetan agertzen denez, Nekazarien Erregimen Bereziaren prestazioak eta Erregimen Orokorrarenak berdinduz joan dira, inoren konturako langileen kasuan, bereziki, nahiz eta oraindik ez den jubilazio aurreratua aintzatesten.

Bestelako egoera dakusagu norbere konturako langileen kasuan, E.A.E.ko nekazari gehienei dagokien kasuan, alegia.

Lau puntutan agertzen zaigu ezberdintasuna: lanerako ezgaitasun iragankorra, amatasuna barne, behin-behineko elbarritasuna, behin-betiko elbarritasuna eta jubilazio aurreratua. Azken honi dagokionez, azken urteetan izan da nekazaritzarako politiken bidez egoera hau

19. TAULA Nekazaritzako Erregimenaren batazbesteko pentsioak Araubide Orokorren gutxienezko eta batazbesteko pentsioen aldean

Nekazarien Erregimen Berezian, gizarte-prestazioak eskasagoak izateaz gainera, pentsioak ere urriagoak dira.

2.8.1 NEKAZARITZAN DIHARDUTEN EUSKAL EMAKUMEEN GIZARTE-ESKUBIDEAK

Arabian ez da horren bitxia emakumeak nekazaritzako ustiapenaz arduratzea, edo haien titular gisa agertzea, senarra jubilatatu edo elbarritasunen bat kobratzen duelako, inoren konturako langilea delako edo alarguna delako.

Gero eta gehiago dira, euren senarrak nekazariak izan ala ez, Gizarte Segurantzza nahiz Nekazarien Erregimen Berezian afiliatuak izan ala ez aintzat hartu gabe, Nekazarien Erre-

gimen Bereziari ordaintzen dioten emakumeak, eta horretarako arrazoi hauek dituzte: euren jubilazioa kobratzeko, beharrezkoa balitz elbarritasuna eskatu ahal izateko, PFEZ delakoa aurkeztean beren etekinak banandu ahal izateko..., hots, lan egiten duten emakumeak iza-teagatik zor zaizkien eskubideak errebindikatzen ari dira.

Bizkaian eta Gipuzkoan emakume gehiago ari dira ustiapen-buru gisa, gogora dezagun sek-torearen ezaugarriak ezberdinak direla: ustiapen arlo txikiagoak, abeltzaintza eta nekaza-ritza intentsiboa dira nagusi, eta denbora partzialeko nekazaritza ere ohizkoagoa da.

Burokraziaren luzamenduak direla medio, ez ditugu Gizarte Segurantzaren afiliatuen kopurua ezagutzen, alabaina, emakume askori ezinezkoa gertatu zaie Nekazarien Gizarte Segu-rantzaren afiliatzea, beren diru-sarrerak senarrenak baino handiagoak direla frogatu behar zuten eta. Arazo hau aukerako edo txandakako nekazaritzaren agertzen da.

Honek zera erakusten du, emakumeek, hainbat kasutan, atzeraka doan edo lehenago zeu-kan garrantzia galdu duen nekazaritzara jotzen dutela.

Nekazaritzako ustiapen baten titularra izanik Nekazarien Erregimen berezian afiliaturik da-goen emakumeak eta ustiapen baten titularra den gizonak eskubide eta erantzunbehar ber-berak dituzte.

Azalpen ugari ematen dira baserri munduko langileek gainontzeko langileekiko jasaten du-ten egoera eskasago hau arrazoitu edo zuritzeko, esate baterako, kostuen gehikuntza (ba-serriko mediku zerbitzuak garestiagoak dira); aitzakiak baino ez dira, ordea, zeren baserri mundu horretan beste sektore batzuetako langileak ere bizi bait dira, Gizarte Segurantzaren za-balagoaz onuratsen direnak, alegia.

Baserriko biztanleriaren zahartze handia ere azaltzen da askotan, industrializazioak sorta-razitako zahartzea; baina, gainontzeko sektoreen mesederako baserri munduak jasan zuen deskapitalizazioa inoiz ere ez dela ordaindu ere esan daiteke, era berean. Hau da, arrazoi asko daude, hainbat argudio erabil daitezke, baina egia zera da, ezberdintasun handiak daudela eta emakumeak bikoizturik jasaten dituela, zeren, apurka apurka bere eskubideez gero eta gehiago baliatzen ari bada ere, bidea luzea da oraindik.

BIGARREN ZATIA

*Kualitatezko
azterketa*

Lurraldea izaki biziduna da, gizartea bera bezalaxe aldaketa eta transformazio-legeen menpe dagoena, eta oso zaila da zeinek zein daukan edo zeinek zeini eusten dion jakiten. Izan ere, lurraldea-gizartea txanpon bereko bi aldeak baino ez dira gizarte-bizitzarenak, alegia. Hain hertsiki elkarloturik daude ezen alde batean izandako aldaketak, halaberharrez, bestean ere eragina izaten dutela.

Hortaz, gizartean, ekonomian nahiz ekologian suertatutako transformazioen poderioz, lurraldea eta paisaia aldatuz joan dira, habitat mota ezberdinak itxuratuz.

Orain arte, lan honen lehenengo zatian zehar, baserria eta kalea aipatu dira behin eta berriro, azken finean, baserritar eta kaletar direlako ohizko kontzeptuak bereizten dituen tartetxoa baino ez den lurraldearen errealitatearen adierazpide ezberdinak azaltzen bait dituzte. Beste garai batetan, bidezkoa izan zitekeen baserritar eta kaletar kontzeptuen arteko bereizketa argia egitea, elkarren aurkako gizarte-bizimoduak balira bezala; baina, hiriaren eragina, bere ondorio guztiekin, bete-betean heldu da baserritar mundura, haren ekosistema nabarmenki aldaraziz, eta hiriaren aldeko eraberetze orokorrik ekarri ez badu ere, kulturaren berdintzera daraman biderako joera bat nabari da —portaerak, pentsamolde eta jokamoldeak, janzkerak, kontsumoarekiko jarrerak— eta egoera honek zeharo eragozten du ideia bereziek biziraun dezaten, batez ere herririk handienetan, ia 10.000 biztanle dituztenetan, non nekazaritzaren tokian bigarren eta hirugarren sektoreetako iharduerak aurki ditzakegun sarritan.

Aurreko kapituluan aipatu den bezala, garai batetan, baserritar delako kontzeptuak funtsezko zenbait elementu biltzen zituen bere baitan, hots: baserrian bizi izatea, nekazaritzako ondasunak ekoiztea eta baserritar bizimoduak.

Baserrian, eta sasoi haietan, familiari, lanari eta abarrei zegokienez euren bizimoduak aldeztu aurretik nahiko mugaturik zeuzkaten gizon eta emakumeak jaio, lan egin eta bizi ziren; alabaina, egoera hau aldatuz joan da eta, batez ere, XX. mendeko azken hogeitamar urteotan. Eta horrela, gaur egungo baserritar munduan, gizonek eta emakumeek bizimodu eta lan ezberdinak dituzte, euren arteko hartuemanak bezalakoak, ekoizpideak ere korapilotu egin direlako, paisaia aldatu, gizakien arteko hartuemanak eta itxaropenak ere, jadanik, ez direlako interes homogeno batzuren ingurura biltzen, arrazoi ezberdin asko bait daude, balarazio ugari, bizimodu arras ezberdinak, eta egoera honek, itxuraz bederen, askoz ere korapilotsuagoa bilakatu bait du baserritar munduko eguneroko bizimodua.

Euskadiko baserritar munduak Estatuko gainontzeko tokietako baserritar munduaren bide berberari darraio, hedapenari, hustutzeari eta zahartzeari dagokienez, nabari diren berezitasunak Euskal Herrian gertatutako industrializazioaren ondorio direlarik.

Baserritar eremua aipatzen denean, E.A.E.ko lurraldearen lau bostenaz ari garela kontutan izan behar dugu, nahiz eta biztanleria guztiaren bosten bat baino ez izan.

E.A.E. osotzen duten hiru lurralde historikoen arteko ezberdintasunak azaltzen dituzten datuak agertu dira, eta haien arabera, Araba dugu Lurralde Historikorik zabalena, udalerri txikiak dituen eta biztanle-dentsitate urriena duena.

Bizkaian eta Gipuzkoan berriz antzerako ezaugarriak ageri zaizkigu, udalerriak handiagoak dira, 5.000 biztanle baino gehiago eta 10.000 baino gutxiagokoak dira, gehien bat, biztanle-dentsitatea ere handiagoa da, baina lurraldearen aldetik ez dira horren zabalak.

Lurraldeen arteko ezberdintasun hauek bakoitzaren industrializazio-mailari eta haren ondorioz sortarazi den lurralde-antolaketari erabat loturik daude.

Horrela bada, faktore hauen askotariko mailakaketan sakondu eta matizazioak egin beharra dago baserritar munduko emakumearen egoera ulertu ahal izateko.

Emakume baserritarrak eta lan merkatua

Emakumeen lan merkaturatzea oso berandu gertatu da gure herrialdean, berandu eta aldraka gertatu ere 80. hamarkadan, eta oraindik ez da amaitu, gaur egun lanen bat lortu duten emakumeak urriak bait dira oraindik ere.

Lan merkaturatze honetan bi emakume-talde nabarmendu dira, batez ere: alde batetik, egun helduak diren emakumeak, merkatu honetara banaka-banaka heldu zirenak, prestakuntza eskasarekin kualifikazio urriko lanpostuak betetzeko, eta askotan, urte batzu igaro ondoren, ezkontzean edo lehenengoz erditzean lanari utzi ziotenak. Beste alde batetik, azken hamarkadan laneratu diren emakume gazteak ditugu, haiek baino ugariago laneratu ere, prestakuntza eta kualifikazio handiagoz, baina, krisialdia eta langabezia jasan behar izan dituztenak.

Prozesu berbera jasan izan da baserritar munduan ere, baina modu ezberdinez jasan da. 60. hamarkadan, industrializazio-prozesuarekin batera, baserriaren hustutze itzela eta hiriratzeari gertatu zen, hasiera batetan gizonezkoena, lan merkatuak gizonezkoak eskatzen bait ziotuen. Eta horrenbestez, baserria soberan zegoen gizonezko eskulanik gabe gelditu zen.

Aldi berean, baserrian lan egiten zuen emakumea lehen ere bigarren maila batetan aritzen bazen ere, baserriaren deskapitalizazioaren ondorioz, emakumeak oso hautabide gutxi izango ditu baserrian.

Orduan hasten da baserriko emakumearen hiriratzeari, euren bizimodua erabaki ahal izateko asmoz, hasiera batetan kualifikazio urriko lanei ekinez, eta horrela, gizaldi batzutan, bereziki, garrantzizko migrazio diferentziala gertatu zen.

Gaur egungo egoerak prozesu haren islada garbia da; orduan emakumerik gazteenek alde egin zuten, gehienetan ezkongabeak, eta baserrian emakume helduak edo ezkonduak izanik euren bizimodua baserrian zeukatenak gelditu ziren, gaur egun, zaharturik, emakume gazteagoekin bizi direnak, hauetako asko nekazaritzaz kanpo, herritik kanpo lan egiten dutelarik ezkondu eta gero ere.

Beste kapitulu batetan nekazaritzan diharduten emakumeen egoera azaldu dugu, euren eritziak entzun ondoren, berriro ere argi dago mekanizazioaren ondorioz haien zeregin osagarria murriztuz joan dela, erabat murriztu ere, nahiz eta laguntza handia eskaintzen dioten euren senarrei zehaztu gabeko eginkizunetan.

Emakumeak nekazaritzako eginkizunetan duen partaidetzaren zenbaterainokoa hazkuntza-motaren, arloen luzezabaleraren eta eginkizunokiko dedikazioaren araberakoa izango da. Abeltzaintzako aldeetan eta bertatik hurbil enpresak edo hiri-industriguneak sortu direlako enplegua sortarazi deneko aldeetan emakumeen dedikazioa askoz ere handiagoa da, esan daiteke emakumea dela ustiapen horien ardatza, senarraren lan nagusia bestelakoa da eta. Abeltzaintzako aldeetan ere emakumea baserriko lanari lotuago ageri zaigu, iharduera horrek arreta eta ardura zorrotzagoa eskatzen bait du.

Esan beharra dago, bestalde, emakumearen dedikazioa handiagoa ala txikiagoa izanik ere, haren lana ohizko etxeko lanen zati edo luzapen bat bezala hartzen dela.

Emakumeen iharduerarik disdiratsuenak, kasu honetan baserrian bizi diren emakumeena, etxeko lana da. Lan tasak, oro har, ez dira oso handiak, dentsitate handiagoko udalerrietan izan ezik, hau da, hirien antzeko udalerrietan salbu; zeren, lehenago ere esan dugun bezala, nekazaritzaz edo abeltzaintzaz kanpoko sektoreetan lan egiten duten emakumeak hurbil dauden hiriguneetara joaten dira lanera.

Familia eta etxe- lanak emakume baserritarren ardurapean

Baserriak gaur egun erakusten duen egoera mugatu (ulertu) nahi izanez gero, baliabide ego-kienetako bat gizartean, oro har, izandako aldaketa sakonetara jotzean datza; izan ere, ba-serriko gizarteari dagokionez, hain zuzen, aldaketa horien poderioz, baserriari buruzko ohizko irudiak nahiko zaharkituak bait dira dagoeneko.

Emakume baserritarrak direla-eta egiten ari garen azterketa honen aurrerabideak arlo bere-zi batetarantz garamatza, emakumeei hain ezagun eta estatistikari nahiz ohizko metodoei, aldiz, emakumeek ekoizpenean (BEG delakoan) duten parte hartze urria dela medio, hain arrotz, gertatzen zaien arlo batetara, hots, familia eta etxe-ko arazoak.

Ekonomian eta gizartean izandako aldaketek eta baita hiri-ereduen eraginak ere, nahaste handiak sortarazi ditu lehenago nortasun berezia zeukan baserri munduan, eta aldaketa hauek etxe-ko zereginetan edo familiarengan ere nabaritu dira.

Baserriko familiaz hitz egitea, beraz, ezer gutxi adieraztea litzateke, lehenago aipatu dugun egoera anizkun eta ñabarra kontutan hartzeke mintzatuko ginateke eta. Hau da, gaur egun, baserriko familian hainbat familia-mota ezberdin sartzen dira.

Testuinguru honetan, eta ez beste ezeinetan, hurbil gaitezke familiari eta etxeari dagozkien askotariko egoeretara eta, azken finean, haien protagonista nagusiengana, hots, baserriko emakumeengana.

Dimentsiobateko eremu honetan familia edo familia-esparru ezberdinez mintza daiteke:

- Ohizko nekazarien familia, zeinetan gizonak eta emakumeek ustiapen berean lan egiten duten, emakumeek laguntzaile gisa gehienetan.,
- senarrak nekazaritzarekin zerikusirik ez duten lanetan eta emakumea etxe-ko lanetan ari-tzen diren familiak.,
- senarrak nekazaritzan diharduelarik, emakumea kanpoan, bere soldataz eta bestelako bi-zimodu batzuren inguruan aritzen den familia, halakoak ohizkoak ez badira ere.,
- gizonak nahiz emakumeak hirian lan eginik, baserrian bizi direnak.,
- jubilatuen bikoteak eta alargunduz gero bakarrik bizi direnak, bestalde, gero eta ugaria-goak dira eremu honetan.

Familia-mota guzti hauek ageri zaizkigu lurralde berean, nahiz eta bakoitzaren inguruabarrak ezberdinak diren lehenago ere azaldu dugun bezala. Lurralde Historiko bakoitzaren arabera familia-mota batzu gainontzekoak baino ugariagoak dira, baina horretaz ez gara luzatuko hemen.

Dena den, emakumeen esperientzia eta zeregina funtsezkoak dira testuinguru honetan.

Emakumea eta nekazaritza aztertzean ikusi dugunez, gehienetan emakumea ezkontzaren bidez heltzen da nekazaritzara. Honek, askotan, arazo handiak sortarazi ditu familiaren esparrua eratzerakoan ere, zeren baserrian, asko eta asko bait dira, ezkontutakoan, senarraren etxera bizitzera joan eta, etxe arrotz hartan, senarraren gurasoekin, koinatu-koinatekin eta abarrekin bizi izan beharra izan duten emakumeak, guzti haiei bere balioa erakusteko hamaikatzko ahalegin egin beharraz, gainera. Egoera hau oso arrunta izan da baserrian eta orain ere hala da hainbat tokitan.

Nolanahi ere, gero eta ugariagoak dira nuklearrak deitzen zaizkien familiak, nahiz eta nagusiek ez duten gogoko baserritik, hainbat ahalegin eta nekez eutsi dioten ondaretik, alde egitea.

Familiaren baitan, emakumeek hainbat eginkizun bete izan ditu: emaztearena, senitarteko laguntzailearena, umeen hezitzailearena, nagusien erizainarena..., eta hala eta guztiz ere ez dela horrelakorik ematen du.

Horrez gainera, bada beste zeregin bat, gutxitan aipatzen den arren, emakumeek eraginkortasun handiz betetzen dutena, hau da, baserri-etxe edo etxe barneko kudeaketa edo gestioa.

Emakumea, etxe barneko, eta bereziki baserri-etxe barneko, antolamendu eta kudeaketarako funtsezkoa izateaz gainera, tradiziozko baloreak ondorengoei erakutsi eta iraunarazi dituen izan da, zeren talde-bateratzailearen eginkizuna bete bait du, nahiz eta aintzinako baloreok gorpuzten ari den beste emakume-mota horren bizimoduaren aurkakoak izan, emakume berri horrek bere zeregina aitortu eta indartu dezan planteamendu berria behar bait du.

Ekipamenduak, baliabideak, eta zerbitzuak baserrian: edo haien gabezia

Zerbitzu publikoan hainbat kategoria sartzen dira, ekipamendu kolektiboetatik, eraikuntza eta instalazio kolektiboetatik alegia, berez ekipamendu kolektibotzat jotzen diren hainbat instalaziok bete beharko zituzten zenbait eginkizun betetzeraino.

Esan nahi bait da eraikuntzei, baliabideei berez datzekien materialtasuna eta berorien edukina, funtzioak eta erabilerak elkarloturik daudela.

Ekipamendua, berez ez da xedea, eta ez litzateke biztanle-dentsitatearen edo hiri-maila hutsako erizpideen arabera soilik neurtu beharko.

Arazo honek zeresan ugari sortu du lurraldean barrena egindako talde-eztabaidetan solaskide izan diren emakumeen artean. Izan ere, baserri munduaren ezaugarri nagusietako bat, hain zuzen ere, edozein motatako ekipamendu eta zerbitzuen gabezia bait da.

Ez da gure zeregina haiek neurtzea, ez eta zerrendatu, kokatu eta mugatzea, baina, azpimarratu egin behar dugu ekipamendu jakin batzu ez izateak eragin handia duela gizakien eta, bereziki, emakumeen bizimoduan, gabezia horrek bizimodu hau aldatu eta mugatu ere egin bait dezake.

Ekipamendu eta baliabide-urritasun hau hirigintza egitasmoen sorreratik dator, izen horrek adierazten duen bezala, hiri-mailarako eginak bait dira eta ez baserriari begira.

Nolanahi ere, azken urteotan administrazioeko sektore batzutatik ahalegin nabarmenak egin dira gabezia hauek arintzeko, alabaina, ez da aski baserri arloko bizimoduaren kalitatea bermatzeko, eta bereziki eskualde behartsuenei, biztanle gutxien daukatenei, hau da, hirietatik urrun daudenei dagokienean.

Oro har, halako etsipen bat nabari da baserriko ekipamendu eta zerbitzuen inguruan, biztanleriaren beherakadan eta zahartzean oinarritzen dena.

Ekipamendurik eza aipatzen denean, emakumeek denbora-galtze handia dakarzkien eta hiri-ko biztanleekiko desabantailak sentierazten dizkienak aipatzen dituzte.

Aipatuenetako bat hezkuntza mailako ekipamendua dugu. Jakina denez, ekipamendu hau ezartzerakoan, hezkuntza politikak emandako eskualde-erizpide jakin batzuri jarraitzen zaie. 70. hamarkadan, baserrien hustuketaren ondoren, eskola-bilketa bat egin zen eskualdeko eskolak sortuz, OHOk zikloei zegokiari. Eskualde bakoitzak gutxienezko hezkun-

tza ekipamendua eduki behar zuen, eta haietara heltzeko arazoa garraio kolektiboaren eta eskolako jangelen bidez konpondu zen.

Baina, garai batean baliogarria suertatu zen konponbide hau apurka-apurka desagertuz joan da biztanle gutxiko eskualdeetan, garraio kolektiborik gabe, amek beraiek eramaten dituztelarik seme-alabak eskolara, eta horretaz gainera, eskolaz kanpoko iharduerak eta hezkuntza osagarriak gero eta ugariagoak izatera, emakume askok euren seme-alaben beharrian eta eskakizunen arabera antolatu behar izaten dute beren denbora, eta hori hiriren bat gertu izanez gero, bestela, seme-alaben hezkuntzak dedikazio gehiago eskatzen du eta.

Beste alde batetik, behin eta berriz adierazten dute egoera hau berez euren seme-alabenganako bereizkeria sortzen duela. Jakina denez, baserri-aldeetako maisuak ez dira oso egonkorak.

Baina, arazoa latzagoa da, orain arte Oinarrizko Hezkuntza Orokorraz baino ez bait gara mintzatu. Bigarren mailako irakaskuntza edo lanbide heziketari dagokienez, berriz, ia ez da eskaintzarik eta, horrela, guraso askok aparteko ahaleginak egin behar izaten dituzte euren seme-alaben hezkuntzari aurre egiteko, eta ahalegin hori ezin ordaindu daiteke garraiorako edo mantenurako dirulaguntzaz, ez eta beka edo bestelako dirulaguntzaz ere. Baserri munduko pertsonen hezkuntza dexente garestiagoa gertatzen delako ustea nahiko zabalduko dago.

Eragozpen guzti hauen ondorioz, gazte askok, nekazaritzan dihardutenak barne, hirian bizi eta baserrian lan egiteko planteamendua darabilte, izan ere, askoz ere merkeagoa bait da pertsona batek egunean behin lekuz aldatzea, hainbat pertsonak hainbat aldiz baino.

10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi diren emakumeen beste kezka handi bat zera da, osasun-laguntza arloko ekipamenduen gabeziak.

Udal osasun-zerbitzua, oro har, gutxienezko laguntza-tresnez horniturik dauden higieneko baserri-zentruaren edo mediku-etxearen ardurapean izaten da, txandaka iharduten dutenak. Gutxienezko zerbitzu hauek biztanle-dentsitatearen arabera gehitzen dira.

Kezkarik larrienak hiru maila hauetan ageri zaizkigu: langile-kopurua gutxitzeko joera, goardiako medikuak eta zaharregiaren arreta.

Eta normala da emakumeen ikuspegitik gabezia hauexek azpimarratzea, emakumea bera izan ohi delako zerbitzu hauek gehien bat eskatzen dituenak, baina ez ditu beti berarentzat eskatzen, askotan, etxeoandreaki atxekitako eginkizun ugarietako bat baino ez den familiaren zaintzaile edo erizain gisa joaten bait da.

Kezka hau, funtsean, ez da baserri-zentruen edo oinarrizko laguntzako sorostegien kokaguna dela-eta sortua, edozein akats izanez gero hirira joan beharrak baizik, zeren, prestazio bereziak bertan izaten direnez gero, baserri-aldeek haietara egokitu beharra bait daukate. Eta egoera hau are larriagoa da hiritik urrun dauden aldeetan, bide eta garraio arazoak dituzten aldean kasuan, alegia.

Hortik datoz, halaber, garraio publikoari buruzko kritikak; eta puntu honetan ez da ahaztu behar behin adin batetara (50 urtez gora, batez ere) heldutako emakumerik gehienek ez dutela gidatzeko baimenik, emakumea askoz ere beranduago heldu delako mekanizaziora.

Horrela, arazo hau nahastu egiten da, izan ere, nagusien eskakizunak beteko badira, emakume gazteen erantzunkizuna areagotu egiten bait da.

Emakumeek badute bestelako kezkarik ere, esate baterako, haien ikuspegitik baserri-gune askotan, hiri edo hirigune handien ondoan daudenetan bereziki, eragin kaltegarria duen arazo bat, hau da, hiri-lurzorurik eza eta herritik kanpo lan eginik ere euren herrietan bizi nahi duten gazteentzako etxebizitzarik ez izatea.

Hiri-lurzoru apurrak edo hutsik dauden etxebizitzak hirietakoek eskuratu ohi dituzte bigarren egoitza bezala.

5. *Baserriko emakumeen ingurunea: etxeko lanetatik at*

Orain arte baserriko emakumearen deskripzio orokor bat egin dugu, hark nola dakusan bere burua, alegia, emakumeek beraiek erakutsi digute euren bizitza, euren ekintzak mugatzen ditueneko esparrua.

Orain, ordea, emakumeen etxetik kanpoko hartuemanak aztertzeari ekingo diogu, baina horretarako, eta abiabide zuzenari jarraitu ahal izateko, soziologiaren oinarritzko kontzeptu batzu aipatu behar ditugu, denboraren erabilerari buruzkoak, astialdiari buruzkoak, etab..., eta abiapuntutzat har ditzakegun zenbait argitasun ere bai.

Denbora-kontsumoa, denboraren erabilera edo denboraren kudeaketa, nahi bada, lau atal nagusitan sailkatu ohi da, eta horietako batzu aurrerago aztertuko ditugu sakonago.

Hortaz, funtsezko beharrianetan eman beharreko denbora aipatu behar, beharrian biologikoen parekidea izan daitekeena.

Lanbidean edo ikasbidean eman beharreko denbora, bestalde, merkatuaren foro publikoan elkartruka daitezkeen ondasun eta zerbitzuen ekoizpen edo produkzioari dagokiona da.

Beste atal garrantzitsu bat, gure azterlanerako garrantzizkoena hain zuzen ere, etxeko-familiako lanean eman beharreko denbora da, etxeko eremu pribatuan zerbitzuen "sasiprodukzioan" eta bertan bizi den familiaren mesederako egiten den lana, alegia. Eta lan honek badu berezitasunik, ez dauka araupetutako guxienezko soldatarik, esate baterako, ez dago kontrataziopean eta beste gizaki batzuri bestelako ihardueretan aritzeko denbora gehiago izateko aukera ematen dieten ondasunak edo merkatalgaiak ekoizten dira.

Azkenik, astialdiko ihardueretan, jolasetan, jaietan, kultura kontsumoan eta abarretan emandako denbora dugu, halako iharduera asko toki publikoetan buru daitezke, beste batzu, ordea, familiaretan edo eremu pribatuan burutzen dira.

Gauza bera egingo dugu aisia delako kontzeptuari buruz. Egon hainbat eta hainbat interpretazio daude, baina guk E.Gil Calvorenaren hautatu dugu: "Aisia kultur praktika bat besterik ez da, irakaspide eta ikaspidea, gizarte-egituran betetzen den posizioa hobe egokitze gaitasuna ematen duena, eta ahal balitz, posizioz aldatzeko, hobetzeko, gaitasuna ematen duena".

Egia esateko, aisia, astialdia, oraintsuko lorpena dugu, mendebaldeko gizarte honen industrializaziotik eratorria, hau da, lanaren eta ekoizpenaren etikak araututako munduari lotua, "lanik ez egiteko" lanetik atera den denbora da.

Beti ere, hitzaren esannahia osoa betez, benetan lan egiten denean, jakina.

Zeren, zer esan genezake ordutegi edo ordainketa arauturik ez duten pertsonen astialdiaz? Astialdirik izateko eskubiderik ote dute? Astialdia ala beste zerbait al da horiena?

Hauxe da, hain zuzen ere, argitu nahi duguna, emakumeek euren astialdiaz uste dutena eta gainontzekoek baserriko emakumeen astialdiaz uste dutena aztertuz, beste emakumeren astialdiaren ondoan horren ezberdina ez den alderdi hau zehaztu nahi dugu.

Kulturaren, usadioen, ohituren, ekonomiaren eta abarren eraginez, gizarte ezberdinak sortu dira, era berean, eginkizun ezberdinak atxeki zaizkio nor bakoitzari haren sexuaren, kondizioaren edo egoeraren arabera. Horrela, denbora hainbat ihardueratan emateko era ezberdinak asmatuz joan dira, horietako asko eta asko horren ezberdinak diren sexua, rola eta estatua bezalakoak nahastuz eta ondoriozko atxekipen edo esleipenaz sortu direlarik. Banaketa honetan eta gure aztergaiaren arabera, oro har, emakumeen denbora-erabileraz edo denbora emateko eraz eta gizonenaz hitz egin dezakegu, eta bereziketa hau oso zehatza ez bada ere, ezaugarri nabarmenak ageri zaizkigu talde bakoitzean.

Gure aldetik, baserriko emakumeen etxeko lanetatik kanpoko iharduerak jorratuko ditugu. Emakumeei buruzko ideia arrunt bat dago oso hedatua, emakumeek beraiek ere sinesten dutena, gizaldi batzutan beste batzutan baino nabarmenago, gizarte-maila batzutan bestetan baino gehiago, baina askoren baitan agertzen dena, hots, etxeko lanetan batez ere aritzen den emakumeak ez duela astialdirik, eta etxetik kanpo lan egiten duten emakume askok ere arazo bera jasaten dute, haien lansaioa bikoiztu egiten bait da.

Etxeko lanak baditu halako zalantzarritasun edo anbiguotasun zenbait, norberarentzat eta gainontzekoentzat ulergaitz bihurtzen delarik hainbat arrazoiengatik.

Ez du iraupen mugatu edo jakin bat, alderantziz, batzutan oso luze doa, beste batzutan lehenago amaitzen da. Ordaindu gabeko lana denez gero, hark eskatzen duen dedikazioa, ahalegina, sortarazten duen nekea edo gogaikarria neurtezinak dira.

Senitartekoak, gehienetan, ez dira konturatzen ez diote dagokion balioa ematen etxekoandreaken lanari, horren "arrunta" da ikustezina dirudiela; beste alde batetik, nor jakin baten, amaren, emakumearen ardura delako ideia hain errotua delarik, gainontzeko senitartekoek, jeneralean, "bestelako zeregin garrantzizkoak izan ohi dituzte", ekoizpen arloari dagozkionak orain nahiz etorkizunean.

Aukeratu, izendatu edo halabeharturik etxekoandre bihurtu denari ez zaio etxetik kanpo beharizanik, espaziorik, biltokirik edo astialdia emateko aukerarik aitortzen, eta egoera ho-

nek emakumeen isolamendua eta bakardadea ekarri ohi ditu, eta baita norbere buruarekiko begirune-galtze bat ere.

Denbora emateari eta astialdiari buruz erabiltzen ari garen kontzeptuok alde batera utziz gero, logikoa omen da emakumeen aisiari balio gutxi ematea, etxekoandre delako karrerak ez bait du aukera handirik eskaintzen gizarte-mailaz igotzerakoan.

Behinola, ezkontzari lotutako karrera nolabait indarrean zegoenean, agian, ezkontza ego-ki bat egin zitekeen, baina, gaur egun bide hori labanago ageri zaigu.

Eztabaida taldeetan parte hartu duten emakumeetarik, etxeko lanez gainera, askok nekazari-tzan edo abeltzaintzan lan egiten dute eta badira etxetik kanpo lan egiten dutenak ere (haiek baino gutxiago dira).

Senitarteko laguntzaileak edo osagarritzko nekazariak diren emakumeengan areago jasaten dute arazo hau, etxetik kanpoko lana haren luzapen edo osagaitzat jotzen bait da. Jakina denez, emakumeok nekazaritza-abeltzaintza arloan egiten duten lana askotan abeltegiko edo kortetan egiten da eta horiek etxearen zati bat izan ohi dira. Ez daude bereizirik eta, horrenbestez, lanak ere ez dira bereizten.

Beste alde batetik, senar-emazteak lan berbera egiten dutenean nahaste eta anbiguotasuna da nagusi, izan ere, familiari, etxeari eta lanari dagozkien eginkizun eta zereginak nahas-turik egoten dira eta oso zaila izaten da estatus berezia errebindikatzen, norbere eginkizu-nak, onartutakoak eta bestearekin egin beharrekoak zeintzu diren zehazten, alegia.

Gauza berbera gertatzen zaie etxetik kanpo lan egiten duten emakumeei, euren lan ihardu-naldia luzatuta ikusten dutelarik.

Lehen taldekoek ez dute ezer jasotzen beren etxeko lanez kanpoko eginkizunengatik, ez txanponik, ez eta inolako aintzatespenik gizartearen aldetik; izatekotan, ustiapen-buru den bere senarraren eskerrona izan du, agian.

Gauzak honela, azken urteotan, E.A.E.ko herrietako emakumeak ere hasi dira euren astial-dia bete eta zenbait ekintza eta iharduketa burutzen, pixkanaka-pixkanaka astialdiaz ere gozatzeko eskubidea duten pertsonak direlako kontzientzia hartuz joan dira eta.

Horrela bada, emeki-emeki, emakumeak elkartzeko moduak bilatu dituzte, eta askotan, paradoxa badirudi ere, harritzekoa ez dena, zergatia edo aitzakia seme-alaben hezkuntza edo katekesiaren inguruan sortzen da.

Hortik abiatuturik, elkartze-eremuak zabaldu egin dira eta hasierako zergatia eurentzako den-bora izateko bidean emandako aurrerapausu bihurtu da.

Garai batetan, baserriko emakumeek funtsezko zeregina betetzen zuten gizarte mailan; herrietako gertakarietan, seme-alabak jaiotzen zirenean, hiletetan, etab..., emakumeek taldearen bitartekari edo bateratzaile lanak betetzen zituzten, gaur egun, ordea, ez da halakorik, pertsonen arteko elkarloturak ezabatuz bait doaz, eta datxezkien alaitasun edo samintasunarengatik jendea elkar zezaketen gertakariak erakunde publikoen esku gelditu dira eta, horrenbeztez, taldearen gizarte-lokarriak deuseztatu egin dira.

Erkidego edo komunitate txikietan garrantzizkoak izan ohi ziren gizarte-gertakari edo iharduera hauek, finean, ez ziren aisia edo astialdiari dagozkion iharduera hutsak, hau arestian asmatutako zerbait da eta hirigintza prozesuari lotzen zaio, batez ere; alabaina, gizartearekiko bakardadeari ekiditeko balio zuen.

Gaur egun askoz ere zailagoa da etxeko isolamenduari ekiditen, gizarte modernoan individualismoa bait da nagusi, eta horrez gainera, herririk txikienak hustuz joan dira eta zenbat eta zaharrago izan orduan eta ahulagoa da astialdiaz gozatzeko ohitura.

Astialdiaren lorpena, bestalde, emakumeen laneratzearekin ere badu zerikusirik, laneratze hori zailagoa bait da nekazaritzari eta abeltzaintzari dagozkien ekonomietan.

Emakumeek beraiek, hainbat arrazoi eta egoera ezberdin aipatu dituzte etxeko ingurunetik ateratzeaz hitz egin dutenean.

Hortaz, isolamendua, baserriaren hustuketa, zahartzea, etab. aipatu dira, hala nola, herrietako gizarte-girorik eza, herririk txikienetan are gehiago nabari dena, baliabide-urritasunak eta jolas-gunerik ezak, emakumeentzako batez ere, are latzago bihurtzen duen gabezia.

Gizonek, ordea, arazo berberak jasan ditzaketen arren, aitzaki gehiago izan ohi dituzte euren lanaren inguruko gaiez edo herriko administrazioaz hitz egin behar dela-eta elkartzeko.

Arabian, esate baterako, herri-batzarretara gizonak nahiz emakumeak joan daitezkeen arren, praktikan oso emakume gutxi batzarreratzen dira, halako arazoak familia-buruaren esku utzi ohi dira eta.

Bada beste zergati bat ere, emakumeen partehartzean eragin zuzena izaten duena, hau da, seme-alaba txikiak izatea, halakorik denean emakumeen astialdia erabat mugatua izaten bait da.

Taldeak, elkarteak, kolektiboak: kanpora begira

Atal honi ekin aurretik, komenigarria gerta daiteke elkartegintza edo talde-iharduketa zertan datzan mugatzea eta iharduketa hau non eta nola burutzen den kontutan hartzea.

Elkartegintza, beraz, gizabanakoak interes amankomun batzuren ingurura biltzen dituzten ekintza kolektiboek dagokien iharduketan datza.

Iharduketa hau hainbat toki eta eraz janzten da: publikoa nahiz pribatua izan daiteke, ekoizpen-helburuak izan ditzake ala ez... Beti ere, pertsonen astialdiaren erabilerak mugatzen du dena, haien iharduerak baliabideei edo adierazpideei jarraitzen dietenentz.

Nolanahi ere, elkarteak edo taldeak eraginkorrak eta baliagarriak izango badira, ezinbestekoa da taldean konpartitu edo gozatzeko interes amankomunei buruzko ideia argi eta garbi bat izatea.

Gure Herriko elkartegintza nahiko makal dago, egia esan, batez ere, Europako beste herrialde batzutara begiratz gero, edo duela urte gutxi bizi izan genuen egoeraren aldean.

Beste alde batetik, baserriko jendea ere ez da oso elkarte-zalea izan eta, emakumeak are gutxiago, jakina.

Taldeko iharduketei ez zaie aspaldiko idealismoa edo elkartasuna nabari, talde bat sendo-agoa eta batuagoa bilakatzen duen funtsezko osagai hori, alegia. Elkartegintza, eguneroko bizitzako beste zenbait iharduera eta hartuemanak bezalaxe, moztaratu eta bestelako helburu batzutarako erabili ohi da sarritan, burokratizatu egin da eta elkartekideen benetako partehartzea gero eta urriagoa da, funtzionaltasuna da nagusi.

Baina hau hala izanik ere, eta bestelakorik uste bada ere, baserriko komunitateetan gizarte-bizitza zuzpertzten ari da, halabeharrez, agian, eta elkarte-mugimenduaren itxurarik gabe, halako talde-sare bat osotuz doa, batzuk elkarte gisa, beste zenbait emakumeentzako adierazpide askea bihur daitekeen leku publiko bat berreskuratuz edo antolatuz.

Talde hauek modu ezberdinez sortuak dira, eskualdez eskualde oso ezberdinak dira sendotasunari, tamainuari edo egiturei dagokienez, zenbait eskualdetan egon ere ez daudelarik.

Kasu gutxi badira ere, izan badira udalerrien edo udal nahiz foru administrazioen borondatez eta laguntzaz sortutako ekinbideak ere, hots, kultura ihardueren edo bestelakoen birtutez etxetik irten eta elkartu beharrari buruzko gogoeta, gutxienik ere, sortarazi dutenak.

Hiru lurralde historikoen egoera ere ez da berdina.

Bizkaian, adibidez, emakume-taldeen sorrera, halakorik dagoen eskualdeetan, Bizkaiko Aurrezki Kutxari lotzen zaio; erakunde honek, Gizarte-Ekintzak deituriko egitasmoaren bidez, emakumearentzako kultura zentroak ezartzeari ekin zion bide nahiko tradizionalari jarraituz eta aurrerago aipatuko ditugun hainbat iharduera eskainiz.

Gipuzkoan, bestalde, ohizko elkartegintza urriagoa da, eta dauden elkarteak ñabarragoak dira bai jatorriei eta bai edukinei dagokinez, bide berriagoei jarraitzen dietela esan genezake.

Arabian, emakumeen elkarteak edo batzarrak lehenagotik datozkigu, Gasteizko Herri Kultura Zentroei loturik, herri handienetako batzutura jotzen zuten iharduera-egitasmo batez, ikastaroak, etab.

Baina hau, udalerrri txikietako emakumeen elkarte edo taldeen ikuspegi bat besterik ez da, ikuspegi ofiziala nolabait esateko.

Herri jakin batzutura eta haietan ere emakume batzurengana soilik heltzen den eskaintza urri eta mugatu honetaz gainera, herri askotan ikus daiteke dagoeneko nola emakumeak biltzen hasiak diren, eurentzako biltokiak errebindikatzeko, eta nola gazteenak beste herri handiago batzutura joaten diren etxetik kanpoko iharduera erakargarriagoen bila.

Emakume-talde hauek halako berezkotasun berezia erakutsi zuten, euren auzoko emakumeekin patxadaz eta lasai gizarte-hartuemanak izateko nahia azaltzen dute.

Talde hauetako asko, ordea, sendotuz eta finkatuz joan dira, beste batzurekiko lokarriak askatu eta euren bide berezia jorratuz.

Gezurrezko baikortasunik gabe, elkartegintzaren hazia ereinda dagoela esan daiteke, herrien gizarte-bizitza eta giroa berreskuratzeko asmoa zuzpertzeko ari dela, baserri munduan gaur egun nabari den egoera aldatzeko gogoia, alegia.

Eta puntu honetan dei bat egin beharra dago, lehen aldiz, agian, egiten den deia: produktiozkoa ez den denboraren erabilerari dagokion garrantzia aitortzen hasi beharra dagoela, bizitza kalitatea areagotzeko eta, azken finean, baserri munduari laguntzeko funtsezko tresna bait da.

Talde eta elkarte ezberdinen ihardueren edukina aztertzerakoan, berriro jo behar dugu abiapuntura, zeren astialdiko iharduketa edo aisiaren erabilera ekoizpen edo ikasketa-mailako lanbide-ihardueren eta familia arloko etxe-ihardueren ondo-ondoan aztertu beharra daukagu.

Antolatutako aisiaren bidez zerbait lortzekotan, norberak gizarte-egituran betetzen duen toki finkatzea lortzen bait da eta, askotan, igotze bat arindu edo errazagotu ez baino jarraipena bermatzea.

Kasu honetan, elkarateak lehenengo urratsak ematen ari direnean, batez ere, antolatzen diren iharduerak, hau da, emakumeak erakarri behar dituztenak, haien etxeko lanei lotuak izan ohi dira: sukaldaritza ikastaroak, makramea, etxekoandreak eguneroko lanari dagozkion hainbat esku-lan, emakumeek janaria prestatzen, josten, etab., ez balekitez bezala. Nolanahi ere, guzti honek zaharkitua eman badezake ere, beste garai batekoa, alegia, bada hala izateko arrazoirik, hainbat emakume-taldek gogoan izaten dituen arrazoiak, hots: horrelaxe erakar daitezkeela sinesgaitz agertzen diren emakumeak edo etxetik kanpoko astialdiari dagozkion iharduera hauetara hurbiltzeko arazoak dituztenak.

Emakume askorentzat garrantzi handia du "denborarik ez alperrikaltzea", emandako denboraren emaitza ikusi behar dute nolabait: egin dituzten apaigarriak, sukaldaritzako erre-zeta berria, jantzi berria..., bere buruari eta gainontzekoei ere etxetik irtenak zer edo zertarako balio izan duela erakutsi beharko balie bezala.

Horrexegatik, hain zuzen ere, hasiera batetan, behinik behin, tankera horretako iharduerak eskaintzen dituzte talde hauek.

Baina gero eta argiago dago edukin horiek alde batera utzi beharko direla noizbait, edukinak eta iharduerak dibertsifikatu egin behar direla, eta horrela, hezkuntza-gaiei ere, emakumearen nortasuna aberasteko baliagarriak suerta daitezkeenetik, gero eta garrantzi handiagoa ematen zaie.

Lehenago ere azaldu dugun moduan, hartuemanetan aritzen diren taldeen artean ezberdintasun handiak daude baliabideei, egiturari edo sendotasunari dagokienez, eta zenbait aldetan egon ere ez dago halako talderik. Ahalegin egin arren, ez da ezer lortu...etab., denetarik dago, beraz.

Hala eta guztiz ere, badira ezaugarri amankomun batzu eta horiexek azpimarratuko ditugu.

Beste erakunde handiago baten menpe dauden taldeak, oro har, haietatik datorkien eskaintzaren menpe egon ohi dira.

Finkatu egin diren eta berezko nortasuna duten taldeak, aurrera egin ahala, talderatu ohi direnen arteko adostasunaz antolaturiko ihardueren plangintza egiten hasi dira, iharduera horien bidez, apurka-apurka hainbat arlotako profesionaliekiko hartuemanak izaten dira eta, horrenbestez, iharduera haiek eraberritu egiten dira, ia beti izaten da gimnasia, esku-lan eta antzekoei dagozkien ihardueraren bat gerora luzatu egiten dena edota beste talde batzuekiko hartuemanetarako bide izan ohi diren txangoak eta kultura bidaiak.

Dena den, gehienetan, taldez kanpo antolatzen diren ihardueren zain izaten dira, ondo doazenean, jarraipena izaten dutenak, baina gaizki gertatuz gero, bukatu egiten direnak, bukatu eta hor konpon. Esan nahi bait da ez dagoela jarraipenik ez eta plangintzarik.

Eta guzti honen baitan hainbat arrazoi daude, eta garrantzizkoenetako bat diruarena dugu. Finkaturik dauden taldeetan ia sinbolikoa den kuota bat ordaintzen da hilerok, eta taldekideak ere gutxi izan ohi direnez, ezer gutxi egin dezakete alde horretatik.

Zenbait iharduerak, gainera, hileroko kostua izaten dute, txikia, baina, kostua finean. Hor-taz, dirulaguntzen menpe izan ohi dira elkarteok, eta haien egitasmoak garatzeko dirulaguntzok jaso behar, bestela jai dute. Egoera honek hainbat arazo dakartza, dirulaguntzok sarritan berandu edo behar ez direnean heltzen bait dira eta, horrenbestez, plangintzarik baldin bada, pikutara doa.

Emakumeek, bestalde, ez dakusate baserri-eremuan antolakuntzarako egitura baten beharrik, badirudi ez dietela balio handirik ematen hartueman havei eta, gainera, ez dute paper nahasterik atsegin.

Baina, berez ere baserritarrak hiritarrak baino askoz ere gutxiagoa badira, oinarritzko egiturarik ez dagoenetik, herri edo udal txikientzako diru-esleipenak ahazteko joera areagotu egin da.

Gauza bat argitu behar da, emakumeak biltzen direneko eskualdeak aztertzen ari gara, eta bilera horiek handixeagoak diren herrietan egin ohi dira.

Entitate txikietan edo sakabanatuetan erabat gutxitzen dira horrelako bilerak, zeren jende gutxiago izateaz gainera, emakume gazte gutxi dira eta zaharrek lekuz aldatzeko eragozpenak izaten dituzte. Izan ere, beste herri batzutara joateko oztopoak ere aintzat hartu behar dira, emakume askok ez dute gidatzeko baimenik eta.

Iharduerak antolatzeko erari dagokionez, halako buruzagitza bat nabari ohi da, hots, talde finkatua edo errotuagoa izan arren, beti dira pertsona bat edo bi erakundearen "akuilari" gisa aritzen direnak. Horregatik, elkartearen laguntza edo eskuhartze orokorragoa izan ezik, baliteke hainbat konpromisu ezin betetzea edo antolatzen diren ihardueretan partaide gutxi izatea, eta guzti honi baliabide eskasak generatuz gero, porrota etor daiteke eta, era berean, plangintza bat egiteko, ekintza berriak asmatzeko, dirua lortzeko eta abarretarako denbora ematen duten pertsona hauek amore ematea.

Ihardueren aldizkakotasuna, berriz, talde-motari, egindako iharduera-plangintzari, baliabideei eta abarrei lotuko zaie.

Hala ere, iharduerok ez luzatzeko joera da nagusi, hau da, emakumeei denbora gehiegi ez kentzea, eta horretarako tartekatu eta haien ordutegietara egokitu behar dira.

Alabaina, inguruabar askok mugatzen du emakumeek iharduerotan parte har dezaten.

Horietako hainbat aipatu ditugu jadanik. Oro har, interes falta bat somatzen da. Emakume gazteek, gutxi izateaz gainera, ia ez dute parte hartzen; seme-alaba txikiak dituelako, agian, edo, gaztea izaki, bestelako ihesbideak aurki ditzakeelako.

Eragozpen ugari izaten da baserri-etxeetako emakumeak edo nekazaritza-abeltzaintzan dihardutenak erakartzerakoan. Interes handikoak ez ezik, gai edo iharduera baliagarriak aurkeztu behar zaizkie, emakume hauen denbora are urriagoa bait da.

Beste alde batetik, oso zaila da iharduerak baserrian lan egiten dutenen ordutegira egokitzten.

Emakume nagusienak oso gutxitan azaltzen dira. Haien ustez ez da denborarik alperrikaldu behar, eurek zaharrak dira eta ez dute halakoetan zer eginik.

Partehartzaileak, oro har, elkartekideak izaten dira eta jende gehiago ez erakartzeaz kexu dira, muga gaindiezinak daudela ematen du eta. Zenbait talde arazo honi aurre egin eta konponbideren bat bilatzen ari dira eta, horretarako, zabalkunde eta informazio-bide berriak jorratzeari ekin diote.

Elkarriketen helburu nagusienetako bat zera zen, ihardueren edukinak zirela-eta somatutako akats edo gabeziarik behinenak mugatzea, emakumea lan merkatura heldu ahal izateko beharrezkoak izan litezkeen heziketa-edukinak, alegia.

Aisia eta astialdiko ihardueri dagokienez, edukinen bereizketa edo dibertsifikazioa lortu eta etxeko ohizko lanei loturiko iharduerak baino zerbait gehiago eskaintzea litzateke eragozpenik handiena.

Hortaz, iharduera hauen kostua azaltzen da, kostu horri nola aurre egin. Izan ere, emakumeen esku dauden gai hauek ez direla seriotasunez aintzat hartzen ematen bait du, oraindik ere.

Emakumeok, bestalde, iharduerotan gizonaek ere parte har zezaten nahi izango lukete, baina zoritxarrez ezinezkotzat jotzen dute une honetan halakorik lortzea. Oso bitxia bait da gizonaek emakumeek antolatutako ekitaldietara joatea.

Izan ere, elkarteak edo taldeak kulturaren ingurukoa izanik, hura gizon eta emakumeek sortu duteneko herrietan baino ez bait da suertatzen gizon eta emakumeen partehartze hori.

Heziketa-mailari dagokionez, hala dagoen eskaintzan, nola azaldutako eskarian ezberdintasunak ageri dira.

Oro har, lan merkatura heltzeko asmorik ez duen emakume-talde batez ari garela kontutan izan behar dugu.

Hau da, enpleguren bat aurkitu ahal izateko prestakuntza behar duten emakumeek bizi diren herrietatik kanpora jo ohi dute euren heziketa osotu asmoz, eskaintza interesgarria dagoeneko tokietara, hain zuzen, eta hori jakina, norberaren baliabideen arabera dago.

Baserri-eremuan eskaintzen ari diren ikastaroak, urriak ez ezik, ez die oro har benetako beharrezkoak erantzuten, hiriaren ikuspegitik taiutuak izaten dira eta eskualde bakoitzak, aldiz, bere berezitasunak izan ohi ditu.

Beste alde batetik, ez dute baserrirako irtenbiderik eskaintzen, bertan oso enplegu gutxi sortu ohi delako, eta gainera, askotan, hasieran eskatzen den maila ez zaio benetakoari egokitzen.

Gogoratu beharra dago baserri munduak deskapitalizazio-prozesua jasaten ari dela, oraindik burutu ez den prozesua, baserri munduaren diruaz hezitzen den jendea ez dago baserrian, uzta horren emaitza ez du baserritarrak eskuratzen.

Biztanleen eskakizunetara egokitzen bide diren ikastaroak ere, nekazaritza edo abeltzaintzari dagozkionak kasu, ez dute berrikuntzarik ekartzen. Partaidetza, oro har, oso urria izaten da, sarritan emakumeek beraiek ere ez dutelako lan merkatura heltzeko itxaropenik.

Labur adierazteko, heziketa-beharrak benetako eskakizunetara, benetako iguripenetara egokitu beharko lirateke, eskualde beretik egindako eta eskualde berari zuzenduriko egitasmoen bidez.

Nekazaritzan diharduten emakume gazteenek beharrezkotzat jotzen dute prestakuntza bat izatea, kudeaketa lanetarako, adibidez, edo ohizko eginkizunetarako lagungarria gerta da-kiekeela uste dute; alabaina, egitasmo horiek gauzatzeko arazo eta eragozpen ugari daude: joan-etorriak, tokia, ordutegiak, parte har dezaketen emakume gazteek sarritan seme-alaba txikiak izatea.

Nolanahi ere, eta heziketa-kontuak ahaztu gabe, baserri munduan arazorik bada, korapilotsuenetako bat zera da, aisia eta astialdirako iharduerak, eta hala eta guztiz ere, arazo honi ez zaiola seriotasunez aurre egiten ematen du, izan ere, emakumeei zuzentzen zaizkien egitasmo, proiektu, etab. gehienak emakumea laneratzeko prestakuntzaren inguruan hezurmamitzen bait dira. Ez da tokirik aisiarentzat, aisiak baserrian ez omen du fruiturik ematen.

Baserriaren jarraipen eta garapenaren alde benetan apostu egin nahi bada, ezinbestekoa da arazo hauei buruzko gogoetak egin eta bizitza-kalitatea maila guztietan hobetzeko proposamen-bidea eta dinamizatzailea suerta daitekeen antolaketa-egitura bat sortzeko behar-rraren kontzientzia areagotzeari ekitea.

AZKEN LABURPENA

ESPARRUA EDO ABIAPUNTUA

E.A.E.ko baserri-mundua eta emakumeei buruzko ikerlan honetan zehar, eta ikuspegi bikoi-tzetik, gaur egun ageri diren errealitate anizkun eta bereziak aurkitu eta aztertu ditugu. Ara-zo ezberdinak isladatzen dituzten errealitateak, baina ardatz baten ingurura bildu eta ga-rapen amankomunaz agertzen zaizkigunak.

Hiru lurralde historikoei bagagozkie, biztanleriaren eta lurraldearen arteko desegokitze la-rria nabari da.

Industrializazio-prozesuarekin batera hirigintza-prozesu bizia suertatu da eta, aldi berean, baserritiko hiriratze itzela, nekazaritza eta baserri munduari dagokion kontzeptua bera kri-sialdira bultzatu duena.

Hiriaren eta industriaren garapenak eraldaketa nabarmenak sortarazi ditu lurraldearen eta bizimoduaren antolaketari dagokionean. Gizarte eta kulturaren eraberetzea ekarri duten al-daketak eta teknologia; ohiturak, usadioak, ekanduak eta iguripenak, gero eta gehiago, ba-liabideetara heldu eta beroietaz baliatzeko ahalbidearen arabera bereizten direneko era-beretzea ekarri dutenak, alegia.

Gizarte osotua delako kontzeptutik abiatu beharra dago, bi lurralde-erakunde haven arteko, hau da, kalea edo hiria eta baserriaren arteko elkarrekikotasuna eta elkarlotura egon dadi-neko gizartea, alegia.

Erabat hiritarra, industria-ondokoa izanik, nekazaritza atzera doan mundu honetan zer jo-tzen dugu baserrikotzat? zer ulertzen dugu honako ikerlan honen xede diren emakumeak bizi direneko esparru hori aipatzean?

Herrialde ezberdinetan eta E.A.E. ere bai, hiri-baserri delako kontzeptua eta dagokion sail-kapena biztanle-kopuruak mugatu eta ezartzen ditu.

Duela gutxi, oraindik, nekazaritza eremuari ere lotzen zitzaion, baina dagoeneko kontzep-tualizazio horrekin bat ez datozen hainbat erizpide somatzen dira.


Nekazaritza eremuan nekazaritzaz kanpoko erabilera eta iharduera berriak nabari dira gero eta maizago, astialdiari, naturguneei, erreserbei edo egoitza-erabilerei dagozkienak,

hain zuzen. Edo beste modu batez esateko, baserri munduan erabilera-mota berria ageri zaigu: nekazaritzaz kanpoko baserri-eremua.

Horren ondoan, euskal baserri-eremu zahartua, hustua, isolatua, baliabide urrikoa eta gizarte-giro eskasekoa ageri zaigu, 50-60 hamarkadan izan zen eta azken urteotako krisialdiak geldiarazi duen industrializazio-prozesu haren ondorioa, alegia.

Hauxe da, oro har, E.A.E.ko emakume baserritarren bizitzak, iguripenak eta beharrianak mugatzen dituen esparrua, gure azterlanaren abiapuntua.

2. GRAFIKOA



ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA

- 2.000tik beherako biztanle-geruzetan, gehien bat, ageri diren udalerriz osotutako eskualdeak.
Biztanle gutxi eta oso sakabanatuak. Biztanle-batze handia Vitoria-Gasteiz hirigunean eta eskualde-burutza oso ahulak.
- Adin-egitura oso zahartua.
Sex-ratio zeharo desorekatua, gizontasun gaintasaz.
- Lehen sektorea, nekazaritza, eskualde guztietan iristen da %10etik gora.
Ibarrak eta Mendialdea eskualdeetan biztanleria aktibo guztiaren %50era hurbiltzen da. Garapen txikiko hirugarren sektorea.

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA

- 3.000 biztanletik gorako udalerriz osotutako eskualdeak. Eskualde-hiriburu garrantzitsuak baserri-udal hauentzat.
- Adin-egitura aski zahartua. Sex ratio desorekatua, gizontasun tasa handiak.
- Bigarren/industria sektorearen nagusitasuna eta hirugarrenaren goraldia, Enkarterriak eskualdean izan ezik. Lehen sektore ahula, Gernika eta Markina eskualdeetan salbu. Txandakako nekazaritza.

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA

- 2.000 eta 10.000ren arteko biztanle-kopurua, gehien bat, dauzkaten udalerriz osotutako eskualdeak. Baserri-udal hauek garrantzizko eskualde-hiriburuak dituzte.
- Adin-egitura zahartua. Gizontasun alderanzko desoreka txikia erakusten duen sex ratioa.
- Industria sektorearen eragin nabarmena. Deba Beherean eta Tolosaldean baino ez dira nekazari aktiboen portzentaia adierazgarriak. Denbora partzialeko nekazaritza azpimarragarria.

EUSKAL NEKAZARITZA SEKTOREKO
EMAKUMEEI BURUZKO OHAR BATZU

EUSKADIKO NEKAZARITZAREN EGITURAREN EZAUGARRIAK. Araban hazkuntza edo laborantza ezberdinetarako joera tekniko ekonomikoak ageri zaizkigu.

Alde batetik, labore, patata, erremolatxa eta lekadunen hazkuntza hedatua dugu eskualderik gehinetan.

Bestetik, Kantauri eta Mendialdean abeltzaintzarako joera nagusitzen da.

eta azkenik, Errioxa Arabarra delako eskualdean mahatsa lantzen da, batez ere.

Bertako ustiapen-arloen batazbesteko luzezabalerak 35 hektarea jotzen du gutxi gorabehera.

Nekazaritza oso kapitalizatua da eta berorretan diharduten enpresariak, oro har, erabateko dedikazioz aritzen dira.

Bizkaiko lehen sektorean abeltzaintza eta nekazaritza trinkoa nagusitzen dira. Ustiapen-arloak oso txikiak izaten dira (8 hektarea batazbeste) eta, Gipuzkoan bezalaxe, zuzeneko salmentara zuzendutako izateaz gainera, denbora partzialeko dedikazioa da ohizkoena.

Gipuzkoako lehen sektorean, berriz, abeltzaintzarako eta nekazaritza trinkorako joera da nagusi. Bertako ustiapen-arloek, bestalde, 12,6 hektareatako luzezabalera daukate batazbeste. Zuzeneko salmentara, batipat, zuzendutako sektorea dugu eta txandakako dedikazioa da nagusi.

EMAKUMEEEN PARTAIDETZA NEKAZARITZA SEKTOREAN. Nekazaritzako enpresari gisa ari diren emakumeak oso gutxi dira hiru lurraldeotan:

20. TAULA Lurralde bakoitzeko enpresari guztien %

	EMAKUMEAk
ARABA	4,1
BIZKAIA	16,3
GIPUZKOA	9,3

Emakumeen benetako partaidetza senitarteko laguntzaileen artean nabari da eta, batez ere, abeltzaintza eta Denbora Partzialeko nekazaritza nagusi direneko eskualdeetan.

Beraz, emakumeek nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenetan egindako lana bigarren maila batetan ageri zaigu, alabaina, funtsezko garrantzia du.

EMAKUME BASERRITARRAK DIRELA ETA KONTUTAN HARTU BEHARREKO EZAUGARRI NAGUSIAK

TALDEAREN TIPOLOGIA:

40 URTEZ GORAKO EMAKUMEAK

Adin-tarte honetan sartzen dira Euskadiko emakume baserritarren taldeko gehienak. Azpimarra daitezkeen ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Taldeko gehienek oinarrizko edo lehen mailako heziketa baino ez dute.
- Emakume hauetako gehienak ezkonduak dira.
- Ordaindutako lan merkatuan partaidetza urria dutenak.
- Nekazaritzan senitarteko laguntzaile gisa aritzen dira.
- Funtsean, etxeko lanetan eta familia zaintzen eta hezitzen dihardute. Ihardutze honetan gero eta denbora gutxiago eman beharra daukate, seme/alabak gero eta handiagoak dira eta.

40 URTEZ BEHERAKO EMAKUMEAK

Ordezkaritza ugari izan dituzten emakume hauen ezaugarri nagusiak hauexek dira:

- Goraxeagoko ikasketa-mailetara heldu izanak.
- Emakume hauetako askok ordaindutako lan merkatuan parte hartu edo harekiko hartuemanik izan dute. Askotan, ezkondu ondoren edo lehenengo seme/alaba jaiotakoan utzi diote lanari.
- Orain, lehentasunezko joera ez bada ere, birlaneratzeko prest azaltzen dira. Oztopot aurkitzen dute, ordea, lanbide-eskakizun berriak, alegia. Gainera, gehienak ezkonduak dira eta oraindik txikiak diren seme/alabekin denbora asko eman beharra daukate.
- Bizkaian eta Gipuzkoan portzentaia txikia baina garrantzizkoa jotzen duten adin honetako emakumeak aritzen dira baserriko lanetan (abelzaintza eta zuzeneko salmentarako barazkiak) partehartze eta ekimen handiz eta sektorearen etorkizunaz arduratuta.

25 URTEZ BEHERAKO EMAKUME GAZTEAK

Baserri munduan gutxienak diren adin honetako emakumeen ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Goragoko ikasketa-mailetara heldu dira.

- Ordaindutako lan merkatuan sartzeko itzaropena dutelarik, horretarako prestatu dira. Baserri mundutik ateratzeko asmoa dute, nahiz eta sarritan bertan gelditu beharra daukaten gaur egun zaila delako lan merkatuan sartzea.

GOGOETAK ETA LITEZKEEN JOKABIDEAK

- Baserri mundua, emakume baserritarrak gizartearen baitan ageri zaizkigu ageri ere. Gizartearen multzo orokorraren osagi ditugu. Eta beste arlo batzutako emakumeekiko ezberdintasunik nabarmenenak baliabide eta hornizio-gabeziari eta biztanleriaren eta lurraldearen arteko desorekei lotzen zaizkie, funtsean, eta ez bestelako arrazoi ilunei.

Arazo orokor baten aurrean gaude; funtsean, ezaugarri amankomunez jantzia, baina, praktikan, aztergai izan dugun baserriko emakume-taldea ari deneko udalerri, eskualde, lurralde bakoitzaren berezitasunetara egokitutako tratamendu berezi eta apartekoa eskatzen duena. Azterlan honen baitan eta amaierako adierazpen gisa, dinamizaziorako ekinbide eta jokabide orokorrak azal ditzakegu, baina, gerora, azterlan honen ondorengo fase batetan, emakume-talde bakoitzari egokitutako edukinez hornitu beharko direnak.

Euskadiko baserri munduan bizi diren emakume askorentzat, gaur egun, lehentasunezkoa eta beharrezkoa da toki publiko batetan etxetik kanpoko agertoki bat sortu eta finkatzea, beste hutsune batzuren artean, baliabide eta iharduerarik eza konpentsatu eta emakumeon ohizko isolamendua hausteko balio izango duena.

- Baserri mundurako ekintzak moldatzerakoan, hala hezkuntza edo dinamizazio arlokoak, nola aisia edo astialdira zuzendutakoak, zenbait arazo kontutan hartu behar dira. Emakume hauen gehiengoa osotzen duten belaunaldien pentsamoldeak rol berezi batzuren inguruan eratu eta finkatuak dira. Emakume hauek, oro har, ez dute goi-mailako ikasketarik egiteko aukerarik izan eta, euren adina dela-eta ez dira enplegua bilatzen ari; hortaz, erakundeetatik emakumeengana zuzendutako egitasmo eta politiketatik nolabait alboratuak suerta daitezke.

Heziketa eta ekoizpen edo produkzioa uztartu egin ohi diren bitartean, aisia eta norberaren garapenerako heziketari ez zaio baliorik aitortzen.

Etxeoandreei zailagoa gertatzen zaie leku publikoetan ihardutea eta haien ekintzak munta gutxikotzat jotzen dira, askotan etxeoandreaken ohizko iharduketaren jarraipen hutsa baino ez direlako eta hura, ekoizpenaren aldetik antzua omen denez gero, gutxietsia da.

Ez da ahaztu behar, bestalde, emakume-talde ezberdinak direla, belaunaldi ezberdinak, eta talde bakoitzaren eskakizunak era bereziak direla, haiek izandako aukeren, ikasketa-mai-laren, lanbidearen, bizilekuaren eta beronek eskaintzen dizkien baliabide eta hautabideen arabera eskakizunak, alegia.

Xehetasun hauek aintzat hartu beharrekoak ditugu; izan ere, baserri munduan bizi diren emakumeetako gehienak belaunaldi zaharretan sailkatzen dira, nekerik gabe lan egiteko, lan probetxugarrietan aritzeko, denborarik ez alperrikaltzeko pentsamolde eta disziplinaren arabera gizarteratu eta heziak izan diren belaunaldikoak ditugu, eta haientzat aisia edo astialdia ez dira oso garrantzizkoak izan, ez dute balio handirik izan. Alabaina, euren seme-alabak hazi eta urteak aurrera joan ahala, apurka-apurka, emakumeak astialdia berreskuratuz joan dira eta, ohiturak ere aldatu diren neurrian, isolamendua deuseztatu eta eurentzako astialdia izateak duen garrantzia ulertu dute.

Hau horrela izanik ere, oso zaila da emakumeak euren etxeko lan eta inguruetatik ateratzen, eta ateratzen badira ere, "denbora alperrikaltzen" ari direlakoan jokabide hori zuritzen ahalginduko dira seguruenik.

Erabat garrantzizkoa da ekoizpenik gabeko astialdia berreskatzea baserriko emakumeen bizimodua eta bizitza kalitatea hobetu eta areagotu ahal izateko funtsezko baliabide gisa.

- Emakumeak, oro har, eta emakume baserritarrak bereziki uzkur agertzen dira elkartzeari dagokionean, alabaina, gizartea egituratzerako funtsezko elementuak dira elkarteak.

Gaur egun, ordea, ez daude elkargune bihur daitezkeen planteamendu erakargarriak.

Emakumeek beraiek ere, nolabait, ez dituzte horren baliozkotzat jotzen etxetik kanpoko iharduerak, euren abiapuntua ere ezberdina delako, agian. Esan nahi bait da, etxeko iharduketak eragin eskasa izan ohi duela bertatik kanpo eta eragin horren esparrua oso mugatua izan ohi dela.

Taldeko ekintzari dagokionez, baserri munduan, oro har, legez eratu gabeko emakume-elkarteak aurki daitezke, hala ere, azken bi urteotan behar den moduko eraketarako joera nabaritzen dela ematen du. Joera honen baitan, haatik, administrazioak dirulaguntzak ematerakoan ezarritako betekizunen eragina ere egon daiteke hainbat kasutan.

Aipatu beharra dago, bestalde, emakume baserritarrez osotutako talde txikiak baina garrantzitsuak badirela, eta berorien alde apostu egin eta aholkularitza eta laguntza eskaini behar zaiela, laguntza ekonomikoa, teknikoa eta informazio-mailakoa eman behar zaiela talde bateratu gisa behin-betiko finkatzeko.

- Talde hauek hasieratik ahalegindu dira emakumeon pentsamolde eta lanbidera egokitutako iharduerak eskaintzen, horrela taldeen eraketa eta sorrera ahalbideratu edo bermatzeko. Iharduera hauek etxeko eginkizunen luzapen edo berregite bat izan ohi dira, etxekoandrearen egoera indartu egiten dutenak eta, horrenbestez, etxetik kanporatzea bidezkotzen dutenak.

Hainbat kasutan maila hau gainditu da, jadanik, beste iharduera batzu bilatzeari ekin zaio-larik.

Iharduera hauek, aldiz, ekoizpenaz kanpokoak izanik, emakumeen garapen pertsonala dute helburutzat.

Eskakizun hauek badute eragozpenik, ordea, zeren emakumeak ekoizpide edo produkzio-prozesuan sartzera zuzendutako ohizko eskaintzatik at suertatzen bait dira.

Beste talde batzu, berriz, arlo hau jorratzen hasi baino ez dira egin, eta zenbait heldu ere ez dira egin maila honetara.

Dena den, argi dago emakumeen bere buruarekiko eritzi ona areagotu eta sendotu ditzaketen edukin ezberdinez osotutako iharduera ludiko-hezkuntzazkoak gauzatzeko dirulaguntza eta aholkularitza eskaini behar direla.

- Baserriko emakumeen lan merkaturatzea errazteko heziketari dagokionez, Lanbide Trebakuntza bat beharko litzateke, baserri munduan bizi diren emakumeen eskakizunei erantzun eta baserri mundu horren beharrezaneiei aurre egiteko Birziklaketa bat, alegia. Hiriek sexu biotako gazteak erakarri ohi dituzte, bertako heziketa edo enplegu-eskaintza oparotzea izan ohi delako.

Heziketa hutsa ez da nahikoa, ez da aski hezitzea gerora beste merkatu batzutura irteten beharra badago, baserri mundutik joan beharra badago, alegia. Eskualde bakoitzaren garapenerako ahalbideak zehatz-mehatz aztertu eta bertara egokitutako heziketa eskaini behar da, enpleguari eutsi eta bultzatuz, jende-hustuketari aurre egiteko baliagarria gerta dadin heziketa.

Horrez gainera, baserri munduko etxebizitza-eskaintza urriaren zergatiak, eskola-ekipamenduei dagozkien arazoak, osasun arlokoak, aisia eta abarrak aztertu eta konponbideak aurkitu behar dira.

Eta guzti honek heziketa edo dinamizazio hutsa baino haruntzago heltzen den ahalegina eskatzen du.

Emakumeak baserriko gizartearen beste osagai bat dira eta litezkeen ekinbideak erakunde ezberdinen arteko eta sail ezberdinen arteko ahalegin bateratuak eskatzen dituen baserriaren osoko garapenerako erronkaren baitan sartu behar dira. Lehendik badiren egiturez eta sortutako egitasmoez baliatuz, eta beti ere, emakumeen funtsezko eskuhartzea kontutan hartuz, izan ere, haien eskuhartzea ezinbestekoa bait da.

Baserriaren garapena ekintza publiko osoari dagokio eta baita ekimen pribatuaren hainbat proiektu eta iharduerei ere, berauek, oraindik ere, garrantzizko baldintza-ezberdintasunak sortarazten dituzten sektorekaketei ekidin beharra aintzat harturik gauzatu beharko direlarik.

Bibliografia

AZTERLANAK

- AMEZAGA IRIBARREN, ARANTZAZU: —“La mujer vasca”. Bilbo. GEU, 1980.
- ARANZABAL BASARAS, PEDRO: —“Situación de la Mujer en Euskadi”. Gasteiz. Eusko Jaularitza. Hezkuntza Saila 1983.
- ARNAL, CARMEN eta ITURRITXA, EVA: —“Problemática y expectativas de la Juventud Rural en Araba”. Kultura eta Turismo Saila. Eusko Jaularitza. 1990.
- CHABAUD-RYCHER, DANIELLE: —“Espace et temps du travail”. París, 1985. Librairie Meridiens.
- EUSKADIKO EMAKUMEAK: —“Emakumearen lhardunaldiak Euskadin”. Leioa, 1977ko abendua.
- EUSKO JAURLARITZAKO ESTATISTIKA ZUZENDARITZA: —“E.A.E.ko Nekazaritza-Errolda”. 1982.
- EUSKO JAULARITZAKO LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA: —“Lan Merkatuari buruzko Zentsua”. 1986.
- EUSTAT: —Biztanleen Erroldaren Saldoa. 1986.
- EUSTAT: —“1989ko Estatistika Urtekaria”. 1989. urtea.
- GARCÍA DE LEÓN, M.º ANTONIA: —“Las élites femeninas españolas”. Madril. Queimada, 1982.
- GARCÍA FERRANDO, MANUEL: —“Mujeres y sociedad rural. Un análisis sociológico sobre trabajo e ideología”. Madril. EDIWSA, 1977.
- GIL CALVO, ENRIQUE eta MENÉNDEZ VERGARA, ELENA: —“Ocio y prácticas culturales de los jóvenes”. Kultura Ministraritza. 1985.
- HORMILLA SAINS, JOSÉ MARIA: —“La Ginecocracia Vasca”. Bilbo. GEU. 1981.
- JOUNG, JACQUES: —“La ordenación del espacio rural”. IEAL. Madril 1972.
- LAN MINISTRARITZA: —“Promoción Profesional de la Mujer en los medios rural y suburbano”. Madril. Instituto de Estudios Laborales y de Seguridad Social. 1973.
- LARRAÑAGA, POLICARPO DE: —(Xabier de Bursalin). “La mujer en el nacionalismo vasco”. Donosti, Auñamendi. 1978.
- LEFEBRE, HENRY: —“De lo rural a lo urbano”. Bartzelona 1971.

- MEILLASSOUX, C.: —"Mujeres, graneros y capitales". Economía doméstica y Capitalismo. Madril. S. XXI, 1978.
- RAMOS TORRES, RAMÓN: —"Cronos dividido: Uso del tiempo y desigualdad entre mujeres y hombres en España". Emakumearen Erakundea. Bilbo 1990.
- USATEGUI, J. A.: —"Estructura agraria de la Comunidad Autónoma Vasca". Nekazaritza eta Arrantza Saila. 1987.
- YOUNG, KATE: —"La participación de la mujer en la economía campesina". Mexico. Instituto Nacional de Estudios del Trabajo. 1977.
- ZAPATERO, SARA: —"La mujer en la explotación agraria familiar. Estudios de una zona aragonesa". Zaragoza. Centro Investigación desarrollo agrario. 1980.

ALDIZKARIAK

- CALATRAVA REQUENA, JAVIER Y VERICAT NUÑEZ, MARÍA ROSA: —"Trabajo femenino y agricultura marginal: La mujer en la explotación agraria de las Alpujarras". Revista de estudios agrosociales delakoan. 141 zk. 1987ko uztaila.
- CNAF/INFORMATIONS SOCIALES: —"Familles en Milieu Rural". 8 zk., 1990eko azaroa, abendua.
- COUNCIL OF EUROPE / CONSEIL DE L'EUROPE: —"European Symposium on WOMEN IN RURAL AREAS". EOC - CR / CEEG (88) 1.
- COUNCIL OF EUROPE / CONSEIL DE L'EUROPE: —"Les femmes en Milieu Rural". EOC - CR / CEEG (88) 3.
- ECHEBERRIA MONTEBERRIA, JUAN JOSÉ: —"Reflexiones sobre el hombre vasco y el cambio de modelo económico". Eusko ikaskuntzen barne-aldizkarian. 31. lib., 3 zk. 1986ko urria.
- EUROPAKO KOMUNITATEEN BATZORDEA: —"Las mujeres en la agricultura". Informazio, Komunikazio eta Kultura Zuzendaritza Nagusia. Emakumeen Informazio Zerbitzua. 1988ko urria.
- FUENTE BLANCO, GLORIA DE LA: —"Los jóvenes rurales en la encrucijada del cambio (el caso castellano)". Agricultura y Sociedad aldizkarian, 42 zk. 1987ko urtarrila.
- KULTURA MINISTRARITZA / EMAKUMEAREN ERAKUNDEA: —Guías saldoa. "Guía de las Asociaciones de Mujeres". 1987.

KULTURA MINISTRARITZA / EMAKUMEAREN ERAKUNDEA: —Guía saldoa. "Guía de Asociaciones de Mujeres y centros de Interés 1989". 1989.

REVISTA DEL CAMPO: —107 zk. monografikoa "La mujer y la agricultura".

SUSTRAI: —(hainbat ale: 1, 3, 9, 13, 18 zk).